





uk

29. zenbakia / 2002 maiatz

badator **ibilaldia**



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Uda, Asier Mentxaka.
6. ELKARTASUNA. Parapeti elkarte eta elkarrizketa: Arrate Fernández.
8. PHOTO-FINHITZ. Unai Elorriaga & Iker Elorriaga.
9. LEHEN ETA ORAIN. Ereaga, 1950-2002. Asier Mentxaka.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 18. Berango 22.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Eskultura publikoa Uribe Kostan.
28. BERBETAN. Benito Lertxundi.
32. ERREPORTAJEA. Ibilaldia 02, maiatzak 26, Getxo.
38. GIZARTEA. Hauek gazte zoroak.

KULTURA

42. FOTOGRAFIA. Iker Elorriagaren argazkiak.
46. ZINEMA. Unai Angulo zinemazalearekin egon gara. Razzi sariak.
48. ELKARRIZKETA. Loli Astoreka.
49. IRAKURGAIK. Ismael Etxebarria, Sopelako olerkaria.
50. MUSIKA. Albert Plá. Eta Hiru Beltz musika taldea.
52. SAREAN. Internet Iker Merchán-en eskutik.
54. KOMUNIKAZIOA. Karma, aldizkari hauslea; www.bizkaie.com.

EUSKARAZ

56. URIBERTSOAN BARRENA. Estixu Arozenari elkarrizketa. Bertso eskolako gazteak. Begi belari eta Itxaso Pairen bertsoak. Algortako Bertsolari Eskolaren eskutik.
60. AKABUKO PUNTE. Berangoko Manuel Ugartegaz berbetan egon da Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.
62. EUSKARA. Berriak, elkarrizketa...

AMAITZEKO


64. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoren errezeta eta Itsaso Aranaren ardoari buruzko lezioa. Lagun-zaharra, Getxoko txoko bat. Fernando Canales, puntako sukaldaria elkarrizketatu dugu. Non jan? Adibidez Azkorri erretegian. Eta pintxoak? Sopelako Denver tabernan.
70. HOROSKOPOA.
71. KOMIKIA. Gorka Vázquez.
72. BERRI HARRIGARRIAK. Popkross 1975, auto lasterketa zoroa.
73. FLASH BACK. San Nikolas Ikastola, 1965. Bittor Egurrola.
74. AITORMENAK. Izaro Iraeta.



32 Badator Ibilaldia 02



48 Loli Astoreka



28 Benito Lertxundi




38 Hauek gazte zoroak



26 Eskultura publikoa



74 Izaro Iraeta



57 Estixu Arozena

zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!!!

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Ameztzi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / aldizkaria@euskalnet.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBERIDEA: meztzi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO
e-mail: aldizkaria@euskalnet.net / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Javi Gonzalez del Herrero, Maitane Burusko, Itziar Bened , Urtzi Iglesias
FOTOGRAFIA BURUA: Aier Mentxaka
TESTUEN OBRAZKETAK: Joseba Butron
INFOGRAFIA: Guillermo Almagia
MARRAZKILARIA: Gorka V azquez
KOLABORATZAILEAK: Bittor Egurola, Jokin de Pedro, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Unai Elorriaga, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchn, Esti Ezkerra, Berbota eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarreak
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Berta Cachorro (94 491 13 37)
FILMAZIOA ARGIA / INPRIMATEGIA: ESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago
' BOLUNTZARRETA
Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen TOPAGUNE ko partaidea da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkarteen dirulaguntza jasotzen du



TOPAGUNEA

Itxasgane Etxea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta



GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Leioak

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du



BERANGOKO

Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jasodu



Erandioko Udala

Aldizkari honek Erandioko Udalaren



Berbots Euskara Elkartea

Aldizkari honek Erandioko Berbots Euskara Elkarteen laguntza jasotzen



Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso

Behar-beharrezkoak

ditugu zuen

dirulaguntza

BBK2095 0022 00 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Bat-batean maiatza

Bai, urtearen bosgarren hilabetea, udaren ataria. Oraintsu Getxon San Isidroak ospatu berri dituzte, hau da, nekazarien jaia. Eurak erein eta gero uzta biltzen dute. Geuk ere gurea bildu dugu ale honetan eta ona izatea espero dugu. Uzta ona opa diegu San Nikolas ikastolako lagunei ere; izan ere, urte osoa eman dute lanean maiatzaren 26ko **Ibilaldia** ondo atera dadin. Bertan **gazte** asko elkartuko dira eta guk euretako batzuk zer pentsatzen duten ekarri nahi izan dugu UK-ko orrialdeotara, eurekin egon ginen institutuetan. Adinez hain gaztea ez bada ere, izpirituz berriz bada gaztea **Benito Lertxundi**. Orain udazkenean argia ikusiko duen diskoa prestatzen ari da. Diskoa amaitu eta duela gutxi plazaratu duen beste musikagile batekin ere egon gara: **Albert Plá**. Elkarrizketa laburra baina mamitsua. Sormenaren munduarekin jarraituz eskualdean ditugun baina gehienetan begiratzen ez ditugun **eskultura publikoak** dira ale honetan gure albuma bete dutenak. Hilero argazkilari bat gonbidatzen dugu bere lanak gure aldizkari honetan erakuts ditzan, oraingoa **Iker Elorriaga**ren txanda izan da. Hau guztia, eta gure ohizko atalak, **Loli Astoreka**, **Fernando Canales**, **Izaro Iraeta**... Uzta oparoa!

UK-ko lantaldea

besteek esanak

“Lelokeriak guztiok pentsatzen ditugu baina jakintsuak ez ditu esaten”
Wilhelm Busch (idazle alemana)

“Euskararekin intentsitate ahuleko arrazakeria praktikatzen dute medioek; estereotipo batzuei lotuta dago gure hizkuntza”
Joxi Basterretxea (Eukal herriko Unibertsitateko komunikazio irakaslea)

“104 urtean eduki duen filosofiak egiten du ezberdina Athletic”
Andoni Zubizarreta

“Lagun batek nik propio idatzitako bertsoak erabili izan ditu ligatzeko. Zelestino lana beraz, egina izana dut”
Andoni Egaña (bertsolaria)

OKERRAK ZUZENDUZ (UK 28)

Getxoko orrialdetan, Josu Elortegi, San Nikolas ikastolako zuzendariari egindako elkarriketan akats nabarmen bi egin genituen: bere egiazko abizena **Elortegi** da eta ez Lartategi guk argitaratu genuen moduan; bestetik, Ibilaldia maiatzaren 24an izango zela igarri genuen, jakina denez **maiatzaren 26an** izango da. Musika orrialdetan, Kafe Antzokiko Kidea den **Jose Angel Iriagarairi**, abizena aldatu genion eta Iribarnegarai idatzi genuen. 50. orrialdean, Irakurgaiak izeneko atalan, **Gonzalo Iribarnegaray** gazteak idatzitako liburuari buruzko erreportajea izena aldatu genion egileari eta Fernando deitu genion. 46. orrialdean, Zinema atalan, **“Network”** filmeari buruz hitz egiten genuen tokian, **1976koa** da eta ez 1997koa.



Solidarioak

Arrate Fernández >
Erromoko Gehideak elkartekoa



Getxokoa da, aisiazko masterra eta doktoretza ateratzen ari da eta lau urte daramatza elkartasun talde ezberdinetan lanean; orain Erromoko *Gehideak* kristau taldean.

- Zer da Gehideak?
- Erromoko elizaren inguruan lan egiten duen elkartasuna taldea gara. Apirilaren azkeneko astean, Caritas, Sskaut eta astialdirako gazte taldeekin batera, Etorkinaren Astea antolatu genuen Erromon. Horrez gain proiektu gehiago ditugu esku artean.
- Zertan zetzan eta zelan atera zen Etorkinaren Astea?
- Erromon etorkin asko daude eta beraiekiko harremanak sendotzeko eta dituzten arazoak ezagutarazteko, Elizbarrutiko taldeek jardunaldiok antolatzea genuen: kontzertuak, hitzaldiak, jolasak...
- Errepikatzeko asmorik bai?
- Datorren urterako zerbait ezberdina egiteko asmoa daukagu. Hala ere, urtean zehar beste proiektu eta kanpaina batzuk ere antolatzen ditugu; soldaduskaren eta kontsumismoaren aurkakoak...
- Zelan ikusten dituzte erromotarrek etorkinak?
- Jende askok oraindik mesfidantzaz begiratzen ditu; lana kenduko digutela... Ezjakintasun arazoa da. ^m

Erakundea Parapetí

Bost urte lanean Boliviako **Guarany** indiarren alde



San Antonion, Bolivian, elbarrientzako etxe bat eraiki dute Parapetí elkartekoek

Boliviako ibai garrantzitsu baten izena da “Parapetí”, baita orain dela bost urte Andra Mari elizaren babespean sortutako Gobernuz Kanpoko Erakundearena ere. *Parapetí* GKEa 1997an sortu zuten Getxoko 12 auzokidek eta Bolivian bildu dituzte euren ahalegin guztiak. Izaskun Bilbao, taldeko presidenteak, arrazoiak azaldu zizkigun: *“Bolivian pobrezia da nagusi. Guarany indiarren egoera bereziki larria da. Dagoeneko Txilen eta Bolivian baino ez dira geratzen Guaranyak eta desagertzeko arriskuan daude”*. Herrialdearen egoera, oro har, ez da indiar hauena baino askoz hobeagoa. *“Bizi baldintzak oso txarrak dira. Jende gehiena osasun baldintza penagarrietan bizi da, argi indarrik gabe, urik gabe...”*. Hango guraldiaren

gogortasunak ere ez du laguntzen. Azkeneko urteotan, uholdeak (Parapetí ibaiaren uriolak oso arruntak dira) zein lehortekak jaso izan behar dituzte boliviarrak. *“Guk, hemen-dik ere, laguntzeko zerbait egin litekeela, zerbait egin genezakeela ikusi genuen eta berehala martxan jarri ginen”*, esan zigun Izaskunek. Parapetí-koek egiten dituzten lanen artean, Gabonetan antolatzen duten bidezko merkatua aipatu behar da. *“Orain arte elbarrientzako etxe bat eraiki dugu San Antonio herrian baina zoritxarrez lan pilo bat dago egiteko oraindik. Hasi baino ez gara egin eta guztion laguntza behar-beharrezkoa dugu”*, azaldu zigun Izaskunek. ^m

Harremanetarako: 94 460 99 28 (Izaskun Bilbao)

Saharako umeak ekartzeko deialdia

Azken urteotan egin duen bezala eta Getxoko Udalaren laguntzarekin, ATFAL Sahararen aldeko elkartek “Oporrak bakean” izeneko kanpaina jarri du martxan aurten ere Getxon. Egitasmo honek mendebaldeko Saharako kanpamentuetan bizi diren umeak euren etxetan hartzeko aukera ematen die herriko familiei. Guztira 7 eta 12 urte arteko hogeit hamar ume inguru etorriko dira uztailaren hasieran hile bi gure artean pasatzeko.

Harremanetarako: 658 751 349 / atfal@guay.com

Hortz bi eskuan



LA KANTERA, ARRIGUNAGA 2000

“Probatu ez duenak ez daki”

Ez dakizu zenbat aldiz errepikatu behar diren gauzak inork kasu egingo badizu. Ni esan eta esan ibili naiz. Baina ez dit inoiz kasurik egiten. Esan diot: ez du minik ematen, ez zara jausiko. Baina berak ez zidan kasurik egiten eta ez zuen probatu nahi. Beldurra zeukala, lotsa ematen ziola. Hori esaten zidan behin eta berriro. Baina ni bera baino tematiagoa izan eta lortu arte ez dut etsi.

Patin baten gainean sekula ibili ez denak ez daki ze plazer ematen duen. Ez daki, gainera, patinetan ibiltzeko beren-beregi egiten dituzten pistetan patinatzea munduko gozadarik handiena dela. Eta ematen du hegan zoazela. Eta probatu ez duenak ez daki, eta nik edonori gomendatuko nioke eta, zer esanik ez nire familiakoei.

Horregatik joan gara gaur familiakoak Arrigunaga aldera. Irakatsi nahi diet. Eta esan eta esan ibili naiz baina ez zuten probatu nahi, ez dakitelako zer den. Ikusi dute, gainera, tipo bat

buruz behera jausten eta musturra odolustuta eta hortz bi eskuan eta, egia esan behar bada, horrek ez ditu animatu familiakoak.

Baina, hala ere, esan eta esan egon naiz ni goiz osoa. Azkenean lortu dut, jakina. Izan ere, ez dago nire negarrak hiru egunez jasango dituenik.

Aita animatu da azkenean. Esan diot, esan ere, ondo eta fuerte heltzeko nire eskuei. Ez zaiola ezer gertatuko. Hasieran apur bat kikilduta egon da. Esan du ia ez dela kabitzen patinean eta oso nagusia dela bera horretan hasteko. Baina, azkenerako nire eskuei tinko heldu eta hor ibili gara, gora eta behera, ordu erdiz. Gustatu egin zaio azkenean.

Ettxera heldu garenean esan dit bihar ere joango ote garen eta etzi ere joango ote garen. Moderatzeko esan diot nik, bihar astelehena dela eta lanera joan behar duela; ni mantentzeko, besteak beste. m



[lehen]



[orain]

Iraganez doa denbora* beti / EREAGA 1950-55/2002

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

Argazkiak:
(Orain) **Asier Mentxaka**
(Lehen) Lasai tabernak utzia

Girorik ez Algortako gauean

Algortako asteburuetako gauak ez dira lehen izan zirenak; **gaugiroa** eta jendea aspaldi **desagertu** dira herriko kaleetatik eta horrek kolokan jarri ditu Algortako hainbat **taberna**

Egoera larria da eta tabernariak kezkatuta dabilta aspaldian. Dagoeneko taberna batzuek ateak itxi dituzte eta beste asko arrisku bizian daude. Itxi behar ez izateko eta aspaldiko giroa berreskuratzeko asmoz, tabernari batzuek ekintza ezberdinak antolatu dituzte.

Zortzi tabernari izan dira ekimen hauen bultzatzaile: “Alai”, “Etxetxu”, “Satistegi”, “Viejo Café”, “Swan’s”, “Bost”, Barbarella” eta “Getxo” tabernetako jabeak. Guztien artean ekintza ezberdinak antolatu dituzte herriko giroa berreskuratzeko asmoz. Ideia honen aita Javi Mier “Bost” tabernako jabea izan zen. Alatz Bilbaok, “Satistegi”ko jabea eta ekintza hauen arduradunetarikoa batek, zerbait alternatibo antolatzeko arrazoiak azaldu zizkigun: *“Aspalditik eta pixkanaka-pixkanaka, Algorta hiltzen ari da. Asteburuetan adibidez, Amezti kalean ez dago inolako giro-rik eta horren ondorioz areto batzuk traspasoa- an daude gaur egun”*. Krisi honek azalpen ugari ditu; herrian dauden aparkatzeko arazo- ei, sarritan egiten diren alkoholemia kon- trolak, tabernak ixteko ordutegi zorrotza eta erredadak gehitu behar zaizkie. Algortan dauden oztopoak ikusita, gazteek berandu- go zabalik dauden inguruko herrietako tabernetara joatea erabaki dute. Exodo handi honek on egin die, esaterako, Kirol Portuko tabernei edota kostaldean zehar zabaldu diren lokalei, herriko taberne- k galera handiak jasotzen ari diren bitartean. Egoera larri hau aldatzeko, lehen aipatutako tabernen arduradunak ekintza ezberdinak antolatzen hasiak dira.



Satistegi tabernan antolatutako antzerki emanaladi bat

Antzerkia... Apirilaren lehenengo astean formato txikiko antzerki ziklo bat jarri zen martxan herriko tabernetan eta datozen hilabeteotan, jai tematikoak egiteko asmoa adierazi ziguten proiektu honen arduradunek. Lege sikua eta piratak gai hauetarikoa batzuk izango dira. Agenda oraindik zehaztu barik dagoen arren, orduak bai konfirmatu dizkigute. Antzerkia zein jai tematikoak gaueko 10etan hasi eta 11:30etan bukatuko dira. Kontzertuak antolatzeko aukera baztertu egin dute tabernari- ek udalarekin arazorik sor ez dadin. Giroaren biziberritze ahaleginetan tabernari- ek apirilean antolatutako jai kubatarra debekatu zuen Udalak eta baita bere arrazoiak azaldu ere: *“Horretarako baimenik ez duten tabernetan horrelako emanaldiak*

eskaintzea legez debekatuta eta, gainera, tabernari- ek ez zuten ekintza hauek antolatzeko baimenik eskatu”, esan zuen alkateak. Antzerki emanaldiei buruz, ordea, zera adierazi zuen Iñaki Zarraok: *“Baimenik eskatuko balute, jakina, aztertuko litzake eta, soinu*

«Jai tematikoak ere antolatu nahi dira: hurrengoak lege sikua eta piratak»

aldetik neurriak errespetatzen badira, emanaldi hauek egin ahal izango dira”. Tabernariak, berriz, ez datoz bat udalaren jarre- rarekin, beste herrien aldean, legea zorrotze- gi betearazten bide delako Getxon. Ez- tabaidak badarrai, baina honegatik edo bes- teagatik, Algortan momentuz girorik ez. m

Bereiztearen garrantzia

azpimarratzeko birziklatzearen aldeko kanpaina

“Erreziklatzeko lehendabizi be- reiztu” lelopean, Getxoko udalak kanpai- na bat abiarazi du bereiztearen garrantzia azpimarratzeko asmoz. Getxon asko erre- ziklatzen da, baina ez egin litekeen bezain ondo, udalak egindako ikerketa baten ara- bera. Orain arte jasotako arazoak errepika ez daitezen, hondakin bakoitzak bere edu- kiontzi propioa duela gogora ekarri nahi du udalak kanpaina honen bitartez. Bestalde, gogoratu Makaletako etorbidean dagoen Garbigunean mota guztietako hondakinak utz daitezkeela eta altzairu zaharrak batzeko zerbitzua doanik dela. Azkeneko zerbitzu hau eskatzeko 94 464 43 80 telefonora deitu behar da. m

EDUKIONTZIAK GETXON

- 600 hondakin organikoetarako
- 200 ontziak batzeko
- 140 beira batzeko
- 155 pilak batzeko
- 43 fluoreszenteak batzeko



IRAKURZALEEN TXOKOA

Bizarra Lepoan elkar- teak antolatzen duen “Irakurza- leen txokoa” programak agur esan dio ikasturte honi Kirmen Uribe idazleak emandako poesia irakurketarekin. Urrian berriz ere bueltatuko da euskal euskal irakurleei zuzendutako topagune hau. Txoko honetan irakurleek liburu bat aukeratzen dute hilero geroago egilearekin aztertze- ko. Aurten besteak beste, Jon Alonso, Mikel Taberna edota Laura Mintegi izan dira “Irakurza- leen txokoa- n”. Orain arte euskal letretako lumarik onenak igaro dira txoko honetan esaterako, Juan Mari Irigoien, Juan Luis Zabala, Ramon Saizarbitoria, Ixiar Rozas, Xabier Mendiguren, Patxi Zubizarreta, Inazio Mujika, Koldo Izagirre, Iñaki Frieria, Unai Elorriaga...

“GETXOARTE” ARTISTA GAZTEEN ERAKUSKETA AREETAN EKAINAREN 7TIK 9RA

Iazko arrakasta ikusita, Getxoko Kultur Etxeak *Getxoarte* izeneko erakusketa antolatu du berriro, euskal artista berrien lana ezagutarazteko eta artisten arteko loturak sendotzeko asmoz. Aurtengoa bigarren edizioa izango da eta 60.000 euroko aurrekontua edukiko du. Oraingo honetan ezezagun diren 52 artistaren artelan ugari eta ezberdinak azalduko dira. Artistak euskal herritar- rak edo gure herrialdean lan edo ikasten duten 35 urte- arteko gazteak izango dira. Bost adituk aurkeztutako lan guztien artean, zeintzuk izango diren erakusketa handi honetan parte hartuko duten berrogei eta hamabiak. Erakusketa ekainaren 7tik 9ra, 11etatik 14etara eta 17:00etatik 19:30etara bizsatu ahal izango da eta ikusleen partehartze handia espero dute antolatzaileek. Iazko arrakasta errepikatuz gero, Getxoarteri jarraipena emateko asmoa azaldu dute antolatzaileek.



Iazko Getxoarten ikusi ahal izan zen lan bat

Erreziklatzeko, lehendabizi, bereiztu

LEKU BAT GAUZA BAKOITZARENTZAKO

Papera eta kartoiak beren edukiontzi- tan sartzea, beira ezarritako ordutegian, eta plastikozko ontziak edukiontzi horietan sartzea, azukoa askoren aha- legina alferrikakoa izan ez dadin lortzeko ekintzetako batzuk dira.

Kultura gehiago

Kultur Etxeak **bere eskaintza** handituko du aurten. Berrikuntzak erdi aroko azoka bat eta komikiaren jaialdia izango dira

Getxoko Kultur Etxeak eskaintza zabala aurkeztu du hurrengo hiletan. Antolatu dituen ekintza ezberdinen artean, aipagarriena zalantzarik gabe, irailaren bukaeran Algortako kale eta plazetan egingo den erdi aroko azoka. Berritasunen artean, azpimarratzekoa ere bada Gabonak baino lehen egingo den komikiaren lehenengo jaialdia, hiru egunetan zehar sektorearen tendentzia ezberdinak erakutsiko dituen. Ekintza hauei urterokoak gehitu behar zaizkio: maiatzaren 31n Areetako geltokiko plazan egingo den eskulangintza azoka, uztailaren 3tik 7ra Algortan izango den jazzaldia, iraileko habanerak edo udazkeneko kontzertuak. Guztira kultur etxeak 60 kultur ekintza antolatu ditu aurten. ^m



Eskulangintza azoka maiatzaren azkenengo asteburuan egingo da Areetan



Tailerrak antolatzen hasi dira gaztetxean: graffitia, euskara, txalaparta, eskalada...


Algortako gaztetxe berria abian jarri dute

J. B. Uribarri kaleko **lantegi abandonatua okupatu** eta txukundu dute herriko hainbat gaztek

Lehenago gaztetxea Ibeta baserri okupatuan zegoen. Eraikuntza hori baimen barik bota zuten jabeek joan den hilabetean. Beraz, han elkartzen ziren gazteak biltoki berri baten bila hasi ziren eta baita topatu ere. Duela gutxi Algortako J. B. Uribarri kalean dagoen lantegi abandonatuan sartu dira. Eraikuntza egoera negargarrian dagoen arren, orain beste itxura bat dauka gazteek egin duten garbiketa sakonari esker. Horrez gain, komunak eta itoginak konpondu dituzte, argia eta ura jarri eta elektratresnak eraman dituzte etxea bizitzeko modukoa izan dadin: telebista, bideoa, hozkailua... Hala ere, lan handia dago egiteko oraindik. “*Gelak hobeto eta sakonago garbitu behar ditugu,*

zarama asko atera behar dugu eta beste gauza batzuk konpondu, baina apurka-apurka dena egingo dugu”, azaldu zigun gazte batek. Garbitzeaz gain, dagoeneko gaztetxean elkartzen diren taldeek tailer ezberdinak programatu dituzte; graffitia, eskalada, txalaparta, birziklatzea, txistu, gitarra, bertso-eskola eta euskara besteak beste. Talde ezberdinak mugitzen dira gaztetxearen inguruan (ekologistak, anarkistak, abertzaleak...), baina nahi duten guztiek atea irekita dituztela esan ziguten gaztetxeak. “*Larunbatero bilerak egiten ditugu funtzionamendua erabaki eta antolatzeko eta nahi duena etor daiteke. Berrehun lagun baino gehiago elkartzen gara askotan*”. ^m

Jardunaldi mikologikoak eta botanikoak Getxon Basozaleak elkartearen eskutik



Basozaleak elkarteko kide batzuk Itxas-gane etxe euren egoitzan

JARDUNALDIAK ITXAS-GANEN

- **Erakusketa botanikoa** astetelehen, asteazken eta ostiraletan 19:00-21:00.
- **Tailerra** Alfred Llorente biologoarekin. Maiatzak 16 asteartea, 19:30.
- **Irteera** Zeanuriko Landare eskolara. Maiatzak 19 igandea, goizez
- **Hitzaldia** Lurra, Gerardo Besga eta Ocatvio Artiedaren eskutik. Maiatzak 20 astelehena. 19:30.

Argibideak: 619 669 204 Alfred Llorente

Elkarte mikologiko hau 1988ko maiatzean sortu zuen lagun talde batek. Ordutik hona gauza asko aldatu dituzte baina mikologia eta botanika zale hauek hor jarraitzen dute jo eta ke euren pasioa laga barik. Gaur egun 120 bazkidek osatzen dute Rosa Arteta burua duen “Basozaleak” elkarte. Naturazale hauek astelehenero elkartzen dira zazpietatik bederatziak arte Algortan, Itxas-gane etxean duten bulegoan. Zalan-tzaren bat daukanak hara eraman ditzake perretxikoak adituek azter ditzaten. ^m

Antzerkia Maskarada taldearen eskutik Kaio luma zikina lana maiatzaren 17an



Ibilaldiari adi kanpainaren barruan “Kaio luma zikina” ekarriko dute Getxora. Lan hau Gabriel Aresti olerkari handiaren testuetan oinarrituta dago. Lanak Arestiri buruz hitz egiten du eta horrek beste gai askotaz hitz egitea suposatzen du; euskara, literatura, antzerkia eta euskal kultura, lan honek jorratzen dituen gai batzuk dira. Teatro lan hau, euskaraz jakina, Getxo Antzokian antzeztuko da maiatzaren 17an, ostiralean, iluntzeko zortzietan.

AGENDA

Ibilaldia

Maiatzak 26 Getxon.

XIX Eskulangintza Azoka

Artisaren eskulanak ikusi eta erosteko aukera. Maiatzak 31 ekainak 2 artean, Areetako Geltokiko plazan.

Almoneda Azoka

Almoneda, filatelia, numismatika... Maiatzak 24-26 Areetako geltokiko plazan.

Zinekluba

“Lucia y el sexo” Maiatzak 15, 20:00, Getxo Antzokian. Maiatzak 16, Areetako Gran Cineman. “Los otros” Maiatzak 22 Getxo Antzokian. Maiatzak 23, Areetako Gran Cineman.



“Moulin Rouge” Maiatzak 29 Getxo Antzokian. Maiatzak30, Areetako Gran Cineman.

Cinema Paradiso

Getxo Antzokian “La bicicleta de Pekín”. Maiatzak 17 ostirala, 22:00. “Hedwing and the angry inch” Maiatzak 31, 22:00

Antzerkia

Inevitable blues Hamaika konpainiaren eskutik, Emakume bideak zikloaren barruan. Maiatzak 24 Getxo Antzokia.

Musika klasikoa

Debussy eta Beethovenen lanak Ganbara Musika Hirukotearen eskutik. Maiatzak 30, Algortako Kultur Etxeko areto nagusian, 19:30.

Txakurren mundu ahaztua

Txakurrek pertsonei egiten dizkieten **erasoak** albiste izaten dira. Baina inork ez dauka gogoan pairatu behar dituzten abandonu, tratu txar eta borroketako **biktima** izatea. Geurean ere egoera uste baino **larriagoa** dela ziurtatu digu Bizkaiko Animalia eta Landareen **Babestaile Elkarteak**

Gizakiaren lagunik kuttunena txakurra omen da. Baina gu euren adiskide onena garela zalantzan jar daiteke. Leioan egoera ez da makala, txakurren bizi baldintzak askotan urratu egiten direlako.

Uda gainean dugu eta garai honetan, gaintzeko oporraldietan gertatzen den bezala, ohiko irudia bilakatu da errepideetako bazterretan autoei so eginez begirada triste batzuekin topo egitea. Animalia abandonatuei ei buruz ari gara, txakur deslailak. Baina arazoa urte osoan gertatzen da eta ez da abandonuetara mugatzen. Beraz, Bizkaiko Animalia eta Landareen Babestaile Elkartearen lan iraunkorra eta ardura benetan ezinbestekoa zaigu, bai guretzat baita animalientzat ere.

Txakurren egoera larria aztertzerakoan hainbat arazoren aurrean aurkitzen gara. Animaliak identifikatuko dituen txipen gabekia azpimarratzekoa da. Babestaileko Andrés Bitarte albaitariak azaldu digunez, *“Leioan aurkitzen ditugun txakurren %80k ez daramate txipik eta honek guztiz zailtzen du gure lana. Izan ere, ezin dugu jakin animalien osasun historiala edota bere jabea nor den”*.

Aurreko bi urteotan, egoera txarra bazen ere, abandonuen kopuruak ez zuen gora egin. *“Egonkortasun hau aurtengo aste santuan guztiz apurtu da, inoiz baino txakur gehiago aurkitu ditugu. Horregatik udan joera berbera espero da”*. Animalia bat gure etxean sartzen dugunean kontuan izan behar dugu beti bizitza osorako izakia dela, askotan kastaldia baten ondorioa baita. Hau gerta ez dadin, Babestaileak aholkularitza funtzioa betetzen du: jabearen nortasuna, beharrak,



Andrés Bitarte, elkarteko albaitarietako bat lanean. Adopzioetarako zein argibideetarako: 609 438 109

bizimodua eta abarren arabera egokituko zaion txakurra bilatzen da. Gainera, gizartean zabaldu den beldurra ere eragin zuzena du. Izan ere, arraza arriskutsu deitu diren

«Aste Santu honetan inoiz baino txakur abandonatu gehiago aurkitu dira»

txakur asko utziak izan dira. Agian, izu horrek ez dauka fundamentuzko oinarririk. *“Arraza hauek betidanik gure artean egon dira eta besteek bezala haginka egin dute. Arazoa ez datza animaliaaren izaeran, baizik eta jabearen nortasunean”*. m

KONTUAN HARTU BEHARREKO DATUAK

- Leioan txakur ugari aurkitu dira Ospitala eraiki behar zen zuloetan eta inguruetan. Babestailearen arabera, litekeena da txakurren borroka bezalako praktika ez legezkoak atzean egotea.

- Unibertsitatea eta Leioako gune komertzialak dira abandonatzeko ohiko guneak. Jendetsuak diren tokiak direnez oso “erraza” omen da txakurraz desegitea.



Tokian tokiko lan eskariak eta eskaintzak ahalbidetu nahi ditu Behargintza proiektuak

Behargintza proiektuak jadanik badu egoitza Leioan

Orain arte Leioak Erandiorekin batera Behargintza proiektua aurrera eraman izan du. Baina aurrerantzean leioztarrok egoitza berria dugu Mendibile kalean. Lan enplegua sustatu eta bultzatzeko proiektua den honek, tokian tokiko lan eskaera eta eskaintzak ahalbidetu nahi ditu bertoko egituraz baliaturik. Gune berria jubilatuen etxea zenaren tokian ipini da, bere zabaltasuna oso onuragarria

baita. Honek erabiltzaileen kopurua handitzera laguntzen dien heinean lana sustatzeko ikastaroak ere eskaintzeko aukera ematen die Behargintza proiektuan murgilduta direnei. Hala nola, elikagai erabiltzaile titulua ateratzeko jardunaldiak egongo dira. Beraz, hemendik aurrera lan enplegua Leioatik kudeatu ahalko da, guztion eskura dagoen Behargintza planari esker. m

EUSKARAREN ASTEA BARANDIARAN INSTITUTUAN

Barandiaran Institutuan apirilaren 12tik 19ra bitartean euskara astea ospatu zen. Ireki zure begiak euskarari lelopean ekitaldi, txapelketa, jolas eta hitzaldi ugari antolatu ziren bertan. Sei egun hauetan zehar hainbat pertsonaia esanguratsu euren bizipenaz aritu ziren. Besteak beste, Juan Luis Mugertza bidaiaia, Ane Hernani eskalatzailea edota Iker Acero surflaria egon ziren. Euskara asteko lehendabiziko egunean Leioako Basaki musika taldearen kontzertuaz gozatzeko parada izan zuten ikasleek. Bigarren egunean Txan magoak eskainitako emanaldian truko bitxiak bertan bildutako asko aho zabalik utzi zituzten. Euskararen erabilera ikasleen artean suspertzeko helburuarekin egun ederrak bizi izan dituzte.

Iker Acero surflariak hitzaldia eman zuen



SATISTEGI

CAFE

ADITUAK GARA

PINTXO ETA

BOKATA

BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51

ALGORTA

KURKUDI

LIBURUDE NDA

Euskarazko

irakurgai

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA

T: 944 913 402

Umore azoka 02

Mundu osoko
komedianteak eta
genero ugari Leioan

Maiatzaren 30ean hasi eta ekainaren 2an bukatu, aurten ere Umore Azoka antolatu da Leioan. Azoka hau arte eszenikoetan parte hartzen duten hainbat konpainiaren erakustoki eta topagune izateko asmoarekin sortua da. Leioako kaleak lau egun hauetan zehar antzerki, zirko, musika eta beste hainbat motatako ikuskizunen eszenatoki bilakatuko dira. Herriarron irudimena eta komunikazioa sustatzeko xedearekin hemengo antzerki taldeak gain atzerrikoak ere ikusi ahalko ditugu. Besteak beste, Holandakoak, Frantziakoak, Argentinakoak eta Espainiakoak. Izan ere, umoreak ez dauka hizkuntza mugarik; barreak, irudimena, ametsak eta jokoak hizkuntza uni-bertsalak direlako. Aipagarrienen artean, maiatzaren 30ean *El Club de la Comedia* monologo saio ezaguna dugu. Aurtengo martxoan geurean izan genuen Riki Lopezek berriro ere bere umore satirikoa erakutsi digu. Umore Azokaren arrakasta areagotzen doala bilgune garrantzitsua bilakatu da. ^m



Argibideak: www.kulturleioa.com



Gero eta gehiago dira Artatza jauregian ezkontzea erabakitzen duten bikoteak

Udal Euskaltegiak izen eta logotipo berriak ditu 20. urteurrena ospatzeko Udal Euskaltegiak hainbat ekitaldi jarri ditu **martxan**

Aurten hogeiei urte bete ditu Leioako Udal Euskaltegiak eta horrek merezi izan du egitasmo bereziak antolatzea. Nabarmenena, agian, euskaltegiak izen berria hartu duela, logotipoa ere moldatuz. Zuzendariarekin berba egin dugu eta euskaltegia berriro ere bataiatzeko modua izan dela azaldu digu. *“Mastitxu izena jarri diogu orain dela ehun urte mahastiak zeudelako gaur egun euskaltegia ingurutzen duten orubeetan. Gainera, fonetikoki, esateko ere polita dela iruditzen zait”*. Logotipoa, aldiz, aro berrira egokitu nahi izan dute eta horretarako forman eta itxuran garaikidea egin dute. Baina hogeiei urte bete dituztela ospatzeko bestelako hamaika egitasmo antolatu dituzte urte osorako. Orain arte, adibidez euskaltegiko ikasle ohiekin hitzaldiak prestatu dituzte. Maiatzaren 9an Liburu Azokarekin batera Jon Arretxe gonbidatu zuten hizlari. Hil honetan ere 24an ospakizun bikoitzaz gozatu ahal izango dugu. Batetik, Euskara

Zerbitzuarekin batera II. Olinpiada bereziak antolatu dira, non joko ezberdinak izango diren. Eta bestetik, gau aldera *Berri Txarrak* musika taldeak kontzertua eskainiko du. Maiatza osoan zehar Leioako Udal Euskaltegiari buruzko argazkiak eta ikusentzunezkoak erakusgai izan dira, irudi historikoak berreskuratuz. Hortaz, euskaltegiak bere ibilbidea omendu eta aldi berean, bide berriak jorratu eta sendotzeko asmoa du. ^m

EGITARAUA

- Maiatzaren 24an: 16:00-21:00 bitartean Sakonetan **Olinpiadak**.
- Maiatzaren 24an: Sakonetaren atzekaldean **Berri Txarrak** taldearen kontzertua.
- Maiatza osoan zehar Euskaltegiari buruzko **argazkiak eta erakusketak**.

Maskarada

maiatzaren 31n Lamiakon

EGITARAUA, M-11

- **17:00etan** Langileria kalean **hasiera** emango zaio Maskaradari dantza eta kalejira giroan.
- **18:00etan** pertsonaia mitologiko guztiak elkartu eta gero, **Lamiadantza** ikuskizuna.
- **Gaueko 22:30** aldera Lamiako auzoko elizaren ondoan **Akelarre**a ospatuko da, elizak paganoekin zeukan borroka antzetzuz.



Iaz egin zen Maskaradako une bat

Kondairak dio Sugarrek Mariren kobazulora ilea orraztera joateko aukeratzat zuen eguna ostirala zela. Horregatik Lamiako auzoan urtero maiatzaren azkeneko ostiralean ospatzen da Maskarada eta aurtengoan maiatzaren 31n izango da. Urtero bezala lamiak lamien herrira hurbildu dira eta erraldoiak, fanfarria eta herriko jendeak kalejiran ongi etorria emango diete. Lamiak, akerrak, inguma, galtzagorri, sorginak eta ieltxuak bezalako

pertsonaia mitologikoez herria girotuko dute Lamiako auzoko jaiei hasiera emango dien egun berezi horretan. Lamiako Maskaradak hurrengo urtean hogeita bost urte beteko ditu. Izan ere, 1978an jaio zenetik urtero kaleratu da Maskarada. Hastapenak gogorak izan arren, egun inori ez zaio bururatzen hitzordu honi huts egitea. Urteurrena dela eta erakusketak, hitzaldiak eta beste hainbat ekitaldi egiteko asmoa dago. ^m



BILBOMICRO

“1982az geroztik soluzio informatikoak eskaintzen”

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO / Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoak: 4230213

AGENDA

Ospakizunak

Maiatzak 13, Bigarren Gore Astea
Udondo Gaztetxean, film ezberdinak ikusgai.

Kontzertuak

Maiatzak 18, Death-Grind
Kontzertua Gaztetxean: **Piketa en Jeta**, **Forensick** eta **Bealphegor** taldeak.

Zineforuma

Maiatza: **Kevin Spacey** aktore amerikarrari eskainitako zikloan: *Sospechosos habituales*, *American Beauty* eta abar.
Ekainak 1 larunbata: Emisio egun berezia, *Los Simpsons*-en maratoi berezia 24:00tik goizeko 4:00k arte.
Ekainaren 4an: **Alejandro Amenabar** zuzendariari eskainitako zikloa. Bertan *Homenoptero* laburmetraia eta *Tesis* pelikula ikusteko aukera egongo da.

Deialdiak

Maiatzaren amaieran **euskara eta kirolaren** astea Betiko Ikastolan.

EUSKARAREN TELEFONOA

Leioako Euskara Zerbitzua: **94 400 80 44**

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIE

RRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

TRV ontzigintzan eredu

Hogei urte joan dira **Tomas Ruiz de Velasco** (TRV) ontziolak ateak itxi zituela. Gero lekukoa ARN-k hartu zuen, eta gaur egun Murueta ontziolak lan txiki batzuk egiten ditu lantegi berean

1941-1984 bitartean erandioztar askoren lantokia izateaz gain “Tomas Ruiz de Velasco” itsasadarreko ontzigintzaren eredia izan zen. Urte horietan guztietan Txurruka pasealekuko bazterretik enpresak 160 ontzi sartu zituen uretan. Mota guztietako ontziak izan dira horiek: merkantziazkoak, arrainontziak, gasontziak, hozkailu-ontziak eta zama astuneko merkantzia bereziak garraiatzekoak ere bai. Ixtorio asko eta historia izan du ontziolak. Hemen pasadizo apur batzuk bildu ditugu.


TRV-ek bere lehenengo lanak 1941ean egin zituen. Hasieran itsasontzien konpoketa eta moldaketa lanak izan ziren horiek. Urte horretan Bordeleko Garona itsasadarreko hareak garbitzen ibilitako *Mantelier* izeneko ontzia *Elkoname* merkantzia ontzi bihurtu zen.

Enpresak hasiera hasieratik burdinaz lan egin du. Zurezko ontzi bakar bat egon da TRVren kaltetan moldaketa lanak eginez. *Rio Negro* izeneko ontziaren zurezko “bodegetan” burdinezko kutzak ezarri ziren Uruguayra dinamita eroateko asmoz.

1944an enpresak *Rio Manzanares* bere lehenengo ontzia murgildu zuen uretan. Garai horretan ontziolak ez zuen garabiarik eta lan astuna eta gogorra zen ontziak eraikitzea. Lehenengo eta behin gila egin behar zen. Geroxeago gilari marenga eta zuraker guztiak lotzen zitzaizkion ontziaren bizkar hezurra eratuz. Orduan, burdinazko xafлак gurdiz hurbildu eta langileen lepo gainean jarrita egitura horri erantsi zitzaizkion torlojuen bitartez. Xafлак zurakerren goiko alderaino igotzeko eskuko txirrikak ere erabiltzen ziren.

Itsasora

Ontziak itsasoratzeko orduan ere TRV ontziolak bere bidea egin du lanean egon den berrogei urteetan. Hasieran itsasontziak garbien bitartez sartzen ziren uretan, geroxeago malda bihurtetik txirrist eginez, eta azkenik ababor zein istriborretik itsasoratu ziren.



TRVn egindako *Fosfórico* gasontzia 1968an Erandion uretara sartu zutenean

Badaude Mediterraneoan itsasoratu diren TRV ontzi batzuk. 1944an Europak II Munduko Gerraren sarraskiak pairatzen zituen eta TRVek Italiara bidali behar zituen bere lantegian egindako *Polar* eta *Antares* ontziak. Ipar Afrikako bazterrak eta Gibraltar pasabidea saihesteko, ontziak atalez atal Gironaraino eramane eta hantxe bertan osatu eta itsasoratu ziren. *Francisquita* izeneko ontziaren historia ere ez da makala. Armadoreak bere alabaren omenez ezarri zion izena ontziari. Zoritxarrez, alaba hil zen ontzia uretan sartu zen egun berean.

Ontzi txikiak 1947an egin ziren. *Asun* eta *Escoli* arrainontziek 24,5 metroko luzera eta 8 metroko zabalera zuten. Handiena berriz, 1977an egin zen. 139

metroko luzera eta 21 metroko zabalera
zuen *Valle de Unza* merkantzia ontziak.

1982tik 1984 bitartean, errekonbertsioaren ondorioz, Tomas Ruiz de Velasco ontziolak Maritima de Axpe eta Astilleros

**«Europar Batasunaren
integrazio politikak hiltorian
utzi zuen ontzigintza»**

del Cadagua ontziolekin bat egin zuen halabarrez. Tamalez, Nerbioiko ontzigintzak desagertzen jarraitu zuen hurrengo urteetan. Izan ere, Europar Batasunaren integrazio politikak hiltorian utzi zuen itsasadarreko ontzigintza. TRVren itxiera urrats bat besterik ez zen izan. ^m

Desanexio Jaia

maiatzaren 18an eta 19an ospatuko da

Badira 19 urte Erandiok Bilboko desanexioa lortu zuenetik, eta data hori ospatzeko Udalak, udalerriko gizarte, kultur eta kirol elkarteekin batera, Desanexio Jaia antolatu du, hil honen 18 eta 19rako. Ospakizunak Erandio Landan egingo dira, garai batean

hantxe baitzegoen Erandioko udaltxea. Bestalde, azpimarratzekoa da Desanexio Jai hau Kultura Kontseiluaren lehendabiziko ekimena dela. Horretan, alderdi politiko oro eta udalerriko gizarte, kultur eta kirol elkarteak ordezkatuta daude. ^m



Erandioko lehenengo udalbatzako kideak, 1983.
(*Erandio, oroimenerako irudiak* liburutik hartua)

EGITARAUA

Maiatzak18 larunbata:

- 10:00 Martxa zikloturista
- 12:00 Umeen jolasak, tailerrak... Fanfarria eta trikitixa
- 14:30 Herri bazkaria
- 20:00 Dantzak. Uztargi, Trabudu eta Goiz-Alde
- 21:30 Berbena

Maiatzak 19, igandea

- Erandioko talde eta elkarteek egindako lanen erakusketa 11:00 Musika Bandaren ekitaldia
- 11:30 Abesbatzak zaharretxean
- 12:00 Abesbatzak Andra Mari elizan. Mendibaiarte, Altzaga, Abots Alai
- 13:00 Herri Kirolak

iritzia

Jokin Malats-Etxebarria

Erandioko zubiak oraingoan bai?

Ezinezkoa da Bilbao-Ria 2000 Hipermakroegitasmoren berri eduki ez izana. Kaiak nonnahi, lorategiak baino oihanak izango omen diren berdeguneak, erakusketa azoka errealidazio, auskalo zenbat pisuko eraikin “inteligenteak”, eta orain arteko ezker-eskuinalde arteko isolamendua apurtze aldera libaizalab gainean agurtuko diren zubi ezinmodernoagoak.

Hala ere, “kontu” hauek guk us-
te baino aspaldikoagoak dira. Beste-
la zer pentsatuko zenukete jakingo
bazenute 1891ko apirilean Morladet
izeneko batek Erandioko Udalari
Lutxana eta Barakaldo lotuko zituz-
keen zubi bat egiteko proiektua aur-
keztu ziola?

Bai horixe! Zubi eskegi eta jiragari bat, guztira 145 metroko luzerakoa, eta itsasontzien joan-etorriak oztopatuko ez zituen eraiki balute! Eta den-dena garaiko 300 pezetatan!

Guztiok dakigu zubi barik jarraitzen dugula. Galdera, beraz, hau da: Oraingoan bai edo mende bete baten buruan berriro ere zubiak gora zubiak behera?

Nork bere ondorioak atera ditzala. 3

LAIK
Taberna

Tlf. 94.6760328

Bentatxu, 2
48600 - Sopela

Inportaziozko
zerbeziari
onenak

Terraza
zabala

Tatona
BASARTENA

TEL. 946 76 11 28
URDULIZ

basartena

OLATXO

altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11
AREETA
T. : 94 464 89 94

Juan Bautista Zabala, 5
ALGORTA
T. : 94 491 13 94

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

*nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

Goiz-alde dantza taldea

Goiz-alde dugu herrian bere jardueran **urte gehien** daroana. Berrogeigarrena **ospatzeko** gutxi falta dutenean beraiengana jo eta **solasaldian** aritu gara Sorkunde Goikouria eta Oier Urtiagarekin

—Noiz sortu zen taldea?

—Lehendabiziko ekitaldia 1965eko Andra Mari jaietan izan zen. Urtebete pasatxo jardun zuten prestaketa lanean José Luis eta Javier Intxaurre anaiek bildutako mutilek. Gazteekin zer egin pentsatzen hasi eta mutilen taldea antolatu zen. Gero José Luis Orbe txistulariak neskak bildu zituen eta nesken dantzak eta dantza mistoak ere irakatsi.


—Kontatu ezinezkoa taldean aritutakoen kopurua, ezta?

—Bai, halaxe da. Goikoako 45 urtetik beherako ia guztiak pasatu dira taldetik. Herriko guztiak batzeko tokia zen. Orain umeek aukera zabalagoa dute baina, hala ere, 90 bat dantzari biltzen ditugu, 3 urtetik 40 urtera bitartekoak. Bederatzi-hamar monitore ditugu eta, ia ume guztiek euskaraz egiten dutenez, monitoreak ere euskaldunak izaten ahalegintzen gara. Entsaiaitzeko modua ere aldatu egin da. Arin nekatzen direnez utzi behar zaie elkarrekin egoten, jolasten, zerbait berezia prestatu behar da..., pedagogia erabili behar.

“Azken finean, herriari bizia eman nahi diogu, euskal folklorea suspertu eta irakatsi, eta lagun taldea izan”

—Bere garaian garrantzi handikoa edota taldea markatu zuena?

—Bai. 70eko hamarkadaren bukaeran krisialdian sartu zen taldea. Orduan apostu handia egin eta, Jon Beitiak lagunduta, garai hartan hemen ikusi gabeko dantzak ikasi eta ekitaldi berezia egin zen horiek guztiak erakusteko. Oso arrakastatsua izan zen eta handik aurrera ekitaldi asko eta asko izan genuen. *Goi-alde*-ren urterik onenak izan ziren. Esaten zuten Bizkaiko Dantzari-



Argazkian, Sorkunde Guraia eta Oier Urtiaga Goiz-alde dantza taldeko lagunak

dantzarik hoberena *Goi-alde* taldeak egiten zuela. Garai hartan metodologia eta entsaiaitzeko moduak ere aldatu ziren.

—Nagusien taldeak jarraitzen al du?

—Nagusiak, 35 urtetik gorakoak, egun berezietan baino ez dira biltzen: Dantzari Egunean, herriko jaietan, Folklore jaialdian.. eta era espontaneoan Kanpomartxo egunean. Besteontzat eredu bilakatu dira. Garai hartan taldea izan zena denbora laburrean berriro izatea espero dugu.

—Urteko egunik nagusiena?

—Gorpuzti Eguna, duda barik. Urte osoko lana erakusten dugu. Dantza berriren bat badago, egun horretan aurkezten da; dantzari berriak ere orduan plazaratzen dira estreinaldikoz.

—Kanpoan ere ibili zarete.

—Iaz Valladoliden. Tarragonako El Ven-

drellen sei urtez. Orain lau urte Austrian. Leku guztietan arrakasta handia izan dugu. Austrian, esaterako, izugarri gustatu zitzaizkien Bizkaiko dantzak. Harrigarria egin zitzaien makilekin jolasten ikustea, jotak, soka dantzak...

—Bestelako ekimenik ere egiten duzue?

—Noizean behin mendi irteerak, Gabon zahar egunean Erandioko mendien buelta, Olentzero ere bai. Egun horretan jaia dugu hemen lokalean. Musika ere lantzen dugu. Aurten Inauteria egin dugu. Urtero egiteko asmoa dugu, baina ez taldeko gurasoeekin bakarrik, herriko jendareekin baino. Bagabiltza gurasoei irakasten erromerietan dantzan egin ahal izan dezaten. Azken finean, herriari bizia eman nahi diogu, euskal folklorea suspertu eta irakatsi, eta lagun taldea izan, horretarako sortu baitzen taldea. m

Akerladanko aterpetxea

maiatzean atzera irekiko dute

Akarlandako parkean kokatuta dagoen aterpetxean hainbat obra egin dute eta maizatzean martxan jartzen denean, erabat aldatuko da erabiltzeko modua. Aurrerantzean *Suspergintza* elkarteak kudeatuko du eta osatua ez ezik bestelako zerbitzuak ere eskainiko ditu: jantokiko zerbitzua, ludoteka, liburutegia eta aisialdiko jarduera ugari. Aterpetxea erabili nahi duten taldeek auke-

ra desberdinak izango dituzte. Guztira 32 plaza izanik, taldeak gutxienez 12 pertsonakoak izan behar dute erreserba egiteko. Eta elkarteen jarduera laguntzearren, partikularrei baino abantaila gehiago eskainiko zaie prezio aldetik elkarteei. Bestalde, erandioztarrentzat merkeago izango da Akarlandako aterpetxeko zerbitzuak erabiltzea kanpokoentzat baino. m



Erandiokoentzat merkeago izango da aterpetxeko zerbitzuak erabiltzea

AGENDA

Desanexio jaia

Maiatzak 18 eta 19 Erandio Landan

Mendi irteerak

Maiatzak 19

Aloñara Atxazpe mendi taldearekin
San Formeliora Erandioko mendigoizaleekin

Kirola

Maiatzak 25 Nazioarteko

txirrindulari-klasika, “Txuma”
memoriala, 15:30etan Erandio Goikoan.

Ekainaren 22 Emakumeen

txirrindulari-lasterketa Erandioko
Udala Lehen Saria

Jaiak

Maiatzak 30 Gorpuzti jaia

Erandio Goikoan

Ekainak 7-11 San Bernabe jaiak

Fano auzoan

Ekainak 13-16 San Antonio jaiak

Martiartun

Antzerkia

Ekainak 1 19:30 Bekoa ikastetxean
Burbujas taldea

Herritarrek udalari nota jarri diote

Udalak, udal zerbitzu eta jarduerari buruzko **ikerketa** egin du. Herritarrek euren **iritzia** eman dute gai honen inguruan eta hemen bildu ditugu emaitzak

Alde batetik, herritarren aburuz, Berangon ondo bizi daiteke eta bizi kalitatea, beraz, ona da. Izan ere, udalerrri garbia eta segurua dela uste du ikerketa erantzun dutenetatik %70 inguruk. Herriko azpiegiturekin ere (errepideak, eraikinak...) gustura agertu dira auzotarrak, euren beharrak betetzen baitituzte.

Bestetik herritarren %71k lantegi eta enpresa nahiko daudela uste dute. Baina merkataritza denda edo zerbitzu enpresa gehiagoren beharra dago askoren ustez, eta, beraz, gehiago egotea beharrezkotzat hartzen dute.

Kultur arloari helduz, galdeketan parte hartu dutenek Kultur Etxearen lana ondo hartu dute (%60) eta Udalak talde jakinentzat (haurrei, zaharrei...) egindako jarduerak egokitzat jo dituzte.

Baina bizimodua eta kulturaren inguruko iritzia, oro har, aldekoa izan arren, zenbait arlotan udalak lan handiagoa egin behar duelako ustea daukate askok: zirkulazioa, aparkalekuak, garraio publikoa edota berdeguneen kasuan, hain zuzen ere.

Izan ere, herria zeharkatzen duen Sabino Arana kalean auto ugari ibiltzen da eta honek herritarrak kezkatu egiten ditu; herrian aparkaleku gutxi egoteak kezkatzen dituen moduan. Garraio publikoari dagokionez, berriz, autobusak ez ditu herritarren beharrak betetzen; horregatik metroaren alde egiten dute gehienek (ordutegia eta geltokiaren gertutasuna direla medio).



Sabino Arana kalean auto ugari ibiltzen da eta horrek herritarrak kezkatu egiten ditu

Aldi berean, herritar asko ez daude ados herriko argien egoerarekin; honela, galdeketan parte hartutakoen %30ek ezinbestekotzat ikusten dute argi gehiago eta egokiagoak jartzea, egungo egoera txarra dela uste baitute.

Azkenik, parke eta lorategien egoera eta kopuruaren inguruko galderak erantzun dituztenen %35en arabera, berdegune gehiago behar dira.

Datu hauek guztiek erakusten duteenez, herritarrak oro har gustura daude Udalak eskaintzen dituen zerbitzu batzuekin (kultura, bizimodua edota segurtasunaren kasu); baina beste hainbat arlotan

(zirkulazioa, lorategiak, argiteria...) aldatu egitea beharrezkotzat hartzen dute. Hala ere, baikor sentitzen dira datozen urteei begira, bizi kalitatea ona izango delakoan eta azpiegiturak hobetuko direlakoan baitaude. ^m

BALORATUENAK

- Bizi kalitatea, kultura, garbitasuna, segurtasuna, azpiegiturak, jarduerak.

HOBETU BEHARREKOAK

- Zirkulazioa, aparkalekuak, argiteria eta lorategiak.

EGITARAUA Maiatzak 27 ekainak 2


- **Argazki erakusketa.** Herriko kultur eta kirol taldeen argazkien erakusketa.
- **Ballet ikuskizuna.** Maiatzak 28, martitzena: Kultur Etxean, 18:00.
- **Nagusientzako karate ikastaroa.** Maiatzak 30, eguna eskoletako gimnasioan.
- **Esku pilota.** Maiatzak 31, barikua, Udal pilotalekuan, 19:00.
- **Anbulance eta KEN 7** taldeen kontzertua Udaletxe plazan, 22:00.
- **Atletismo krosa.** Ekainak 1 zapatua, herriko kaleetatik zehar.
- **Txirrindulari lasterketa.** Ekainak 8, zapatuan, 12:30.
- **Poesia errezitaldia.** Txirlora taldearen eskutik, ekainak 8, zapatua, 19:00.
- **GKEen azoka.** Ekainak 9, domeka: Sabino Arana kalean, 11:00-14:00.
- **Txakoli dastaketa.** Ekainak 9, domeka, Udal pilotalekuan, 13:30.
- **Haur festa Telmah** taldearekin eta gero txokolatada. Udal pilotalekuan, 18:00.
- **Otxandategi dantza taldearen erakustaldia.** Ekainak 15, zapatua: frontoian, 22:00.
- **Abesbatzaren emanaldia.** Ekainak 16, domeka, Berangoko ibilbidean, 12:00-15:00.
- **Haurrentzako antzerkia.** Eskoletako jantokian, 13:00.

Kultur astea

Udala, Kultur etxea eta herriko elkarteek eskutik, **kirol** eta **kultur** ekintzaz betetako astea

Hirugarren urtez herriko elkarteek, Udalak eta Kultur etxeak “Kultur astea” antolatu dute hilaren 27tik ekainaren 16a arte. Egun horietan, Udalaren laguntza jasotzen duten herriko taldeek urte osoan zehar egindako lana jendaurrean erakutsiko dute. Aurreko urteetan, jardunaldi hauek oso arrakastatsuak izan ziren. Harrera on honek aurtengo “kultur astea” gogotsu prestatzera bultzatu ditu antolatzaileak eta baikor ikusten dute, egitarau polita ondu dutelakoan baitaude.

Jakina denez, adin guztietako herritarrei zuzendutako eta era guztietako ekintzak egongo dira; bai ikustekoak eta baita parte hartzekoak ere. Haurrentzat, esate baterako, antzerkia egongo da Kultur etxeko antzerki tailerraren eskutik. Gazteek, berriz, *Ambulance* eta *KEN 7* taldeen kontzertuaz gozatu ahalko dute. Eta nagusientzat diren ekintzen artean, txakolin dastaketa edota gobernuz kanpoko erakunde azoka ditugu. Informazio gehiago: kultur etxean (94 668 21 43). ^m



Ekainaren 1ean herri krosa korrituko da herriko kaleetatik zehar

Euskal Herriko




ORIXA
liburutegia

Bestelako gaiak:

- Drogak
- Politika
- Bidaia
- Osasuna
- Sexualitatea
- Munduko literatura

Alangoeta 8
(Euskal Herria kalearekin bat) Tfn.: 94 491 23 79



basurto
algora

telletxe 15, algora
T: 460 71 62 - 460 42 44

foto
xabier
argazkiak



Doctor Landa z/g
Tfno. 94 676 03 09
SOPELA



ALGORTA

dj.ak - antzerkia - erakusketak

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kizol moda



350^{m²}
KIROLERAKO
GUZTIA!!


URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4
ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA
TF. 94 491 18 82

[berango]

Juantxu Arrieta > Kultur Etxeko atezaina

“Berangon ezaguna izan arren, lauk baino ez dakite nire benetako izena”



Argazkian, Juantxu Arrieta

Berangoztar askok, Juan Ignacio Arrieta izena aipatuz gero, ez dute jakingo zeinetaz ari garen; argazkia ikusiz gero, ostera, Juantxu dela esango dute berehala. Izan ere, eta berak dioskun moduan, inork ez du bere izen osoaz ezagutzen. Guztiontzat Juantxu da. Juantxu 1950. urtean Laukizen jaio zen. Gazte zelarik, Algortara joan zen eta ezkondu zenean Berangora etorri zen. Ia 20 urte daramatza udal lanean. Aurretik Uribe Kostako zenbait enpresatan ibilia zen baina langabezian lotu eta hemen hasi zen lanean. Hasiera batean, kalean, garbitasunaz arduratzen;

ondoren, hamaika urte eman zituen erretiratuen etxean beharrean eta bost urtetik hona Kultur etxean dabil atezain legez.

Beharrean, herriko jendearekin kontaktuan egoteak egin du Juantxu hain ezagun. Horrek eta gustuko duen asteburuetako txikiteoak ere bai, ziur asko. Hori baita, mendian ibiltzearekin batera (osasunak uzten dionean), bere zaletasunetariko bat, lagunekin bildu eta berbetan edo zergatik ez, kantuka ibiltzea.

Bere begikotasuna dela medio, Juantxo gizon ezaguna eta estimatua izan da beti herrian. ^m



Osasun zentroko lanak martxa onean doaz

Osasun zentro berria

urte bukaerarako prest egongo da

Ezaguna da Berangon biztanle kopurua zenbat hazi den. Honen ondorioz, Sabino Arana kalean dagoen osasun zentroak dagoeneko ez du behar bezalako zerbitzurik eskaintzen. Izan ere, leku txikia da eta langile kopurua ere ez da nahikoa. Honela, eta biztanle kopuru berriaren beharrak betetzeko ahaleginean,

Udala osasun zentro berriaren atontze lanekin hasi da eta urte amaierarako irekitzeko asmoa azaldu du. Irekitzearekin dagoen etxe honek, baliabide handiagok izango ditu, kontsulta eta harrera guneak jarriko dituzte eta langile gehiago egongo dira herritarren premiei erantzuteko. ^m

Matrikula zabalik udal musika eskolan

2002-2003 ikasturtean, musika hizkuntza edota piano Udal musika eskolan ikasi gura dutenek, zabalik dute matrikula egiteko epea, ekainaren 28ra arte. Musika hizkuntza ikasteko ordaindu beharrekoa, hilean 19,55 euro, eta piano ikasteko 16,55. Interesatuak, beraz, udaletxetik pasatu eta matrikulak bete besterik ez dute egin behar. ^m

[berango]

AGENDA

Erakusketak

Maiatzak 13-26, erakustaretoan:
I. Ojangurenen “Euskaldun jaialdia eta herri-ospakizunak”

Umeentzako zinea

Maiatzak 26an, areto nagusian,
17:30: *Dinosaurio*.

Hitzaldiak

Maiatzak 14, BKE: “Euskarri informatikoen erabilera eta ohitura txarrak (internet, bideokontsolak...)” Guillermo Canales, Uribe Kostako Mankomunitatearen prebentzio teknikariaren eskutik.

Maiatzean, eguaztenero, BKE, 18:00etatik 20:00ra:
“Kontsumoaren inguruko hitzaldi zikloa”. Izen ematea, doan.

Kultur Astea

Maiatzaren 27an hasita eta ekainaren 16ra arte, Udala, Kultur Etxea eta herriko elkarteek eskutik, kirol eta kultur ekintzaz betetako asteaz gozatzeko aukera izango dugu. (Ikusi aurreko orrialdea)

Ludoteka

Txiki-ludoteka: 3-8 urte bitartekoentzat (euskaraz). Lanegunetan, 16:30etatik 18:30etara. Tailerrak: eguenero.
Ludoteka: 9-14 urte bitartekoak. 18:30etatik 19:30etara. Tailerrak: eguenero

Berangoko Kultur Etxea: 94 668 21 43



Torrene 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71



Basagoiti, 55 behea
T.: 94 460 09 62 / 66
Faxa: 94 460 0966
48990 ALGORTA
eginkor@euskalnet.net






“Behia”, 2001 / Fermín Moreno / SOPELANAKO UDALA



“Leioako indarra”, 2001
Nestor Basterretxea
LEIOA



“Olatua”, 1989
Nestor Basterretxea
LEIOA



Katalogatu barik / Babes ofizialeko
etxeetan / BERANGO



Eskultura publikoa

Arte nagusietako bat da eskultura, material desberdinak erabiliz bolumena duten formak sortzean datzana. Hona hemen gure eskualdeko kaleetan daudenetako batzuk. Publikoak dira, hau da, herritar guztionak. Goza itzazu!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**

“Cruzero”, 2000 / Vicente Larrea / ALGORTA



Amaitu barik dago eskultura hau
Luis Saitua, 2002 / URDULIZ

[berbetan]

Benito Lertxundi azken hiru belaunaldietako euskal musikari handienetakoa dugu. Beraz, oriotar konpositorea tradizio eta modernotasunaren arteko zubia izan dela esan daiteke. *Ez Dok Amairu* artista taldeko kide izan zenetik urte dezente igaro dira. Aurtengo urrian disko berria kaleratuko du artista honek. Gehientsuenok ezagutzen dugu zer nolako ibilbide profesionala egin duen Benitok, ez hainbeste bere barne mundu sakona. Abestietako letrak ez dira hitz errazez eginak eta dirdira honek Benitoren alde pertsonalena arakatzera eraman gaitu.

Benito Lertxundi

sineskeriarik gabeko pentsalaria

Testua: **Itziar Benedé & Maitane Burusko** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

—Zu nolakoa zaren definitzea ez da bate-re erraza. Gai izango zinateke zeure burua bi hitzetan definitzeko?

—Definizio bat ematen duzunean erantzunak gezurrezkoak izaten dira, are gehiago norberari badagozkio. Horrek ezinegona sortzen du, gizakiaren izaera zerbait konplexua delako.

—Konplexua bada ere, zure akatsen bat kontatuko diguzu, ezta?

—Akatsa beti akats da zerbaitekin alderatzen badugu eta desafio baten aurrean gaudenean. Adibidez, emakume ahotsarekin abestu beharko banu orduan nire akatsa gizona izatea litzateke.

—Baina artistek mania ugari izateko fama duzue...

—Nik ere baditut hainbat. Lanean nagoe-

nean bakardadea ezinbestekoa dut, bestela gaizki sentitzen naiz, ez nagoelako guztiz neure baitan.

—Esnaturik amets egiten duten horietakoa al zara?

—Saiatzen naiz egunerokotasunera mugatzen, epe luzerako proiektu eta ametsen onura baino kalte gehiago egiten dutelako. Bizitza proiektatu duzun horren bila emateak gizakiari estresa dakarkio.

—Etorkizunari begira ez zaude. Baina denboran atzera eginez, zer ikusten duzu?

—Oso haurtzaro polita bizi izan dut. Batez ere, negu partean eta Gabonetan. Bederatzi neba-arrebatatik gazteena naiz eta garai horietan guztiak biltzen ginen kantuz... Gauza horiek gogoratzen ditut oraindik ere nostalgia puntu batekin.

—Urrirako disko berria kaleratuko duzu. Zerbait aurreratuko diguzu?

—Uztailean grabatzen hasiko naiz. Badut gogoa miresten dudan artista bati berak abesten zuen kanta bat eskaintzeko. Honela, Krishna Murtiri diodan miresmena aitortu nahi diot. Egun laurogei urte baino gehiago ditu eta nolabait bizitzari begiratzeko eta igartzeko ispilu bezala aurkitu dudan gizona da. Bere liburuak irakurri nituen eta neure bizitzan pertsona determinatzailea izan da. Nire bizitzan balore zerrenda ezberdina finkatu dit.

—Hain zaila al da balore ezarrietatik ezberdinak topatzea?

—Nire bizitzan balore zerrenda ezberdinek bultzatu naute. Baina baloreen afera oso gauza interesatu eta kapritxosoa dela deritzot, gizartearen jasotzen direlako. Balora-



tzeak gezurra eta batzuetan kalumniak esateko arriskua ekartzen du. Azken finean, pertsona jatorrenak, jakintsuenak eta sako-nenak gara balore zerrenda horretatik kanpo gabiltzanean, gauzak zuzenki begiratzen ditugunean. Baten edo beste baten eskutik at.

“Zoriontasuna eta zorigaitza gora etabehera etengabe dabilen pendulua da”

—Orduan, zer da pertsona batengan zuk baloratzen duzuna?
—Askatasun joera duen gizakia da gehien estimatzen dudana. Oso aberasgarri gertatzen delako bizitza modu horretan jorratzea.

—Azken hiru belaunaldien miresmena lortu duzu. Zer garrantzi ematen diozu horri?
—Jarraitzaileek beti ematen dizute halako gratifikazio dosi bat. Jarraitzaile sutsua denak nire kantuekin ikaragarrizko esperientziak dituela esaten dit. Baten egoaren-

“Sineskeria ariketa kultural nefastoa da, benetako pertzeptzioa mutilatzen duen elementua delako”

Diskografia

- *Ez Dok Amairu, 1968*: artista talde mitikoaren lanaren emailza.
- *Oro laño mee batek, 1973*: Lizardiren poemetan oinarrituta.
- *... eta maita herria, üken dezadan plazera, 1974*: Zuberoako kantekin osatua.
- *Zuberoa–Askatasunaren Semeei, 1977*: Gai instrumentalak lehen aldiz.
- *Altabizkar–Itzaltzuko bardoari, 1981*: Carlomagno Orreagan jasandako hondamenari kantatuz.
- *Gaueko ele ixilen balada, 1985*: Bost kanta luze, Antonio Beschi pianojolearekin.
- *Mauleko bidean... izatearen mugagabea, 1987*: Tresna elektronikoak eta keltar eraginak.
- *Pazko gaiardi ondua, 1989*: Instrumentazio dotore, usain errenazentista eta keltarra.
- *Hunkidura kuttuna I eta II, 1993/4*: Bere kanta esanguratsuenen bilduma.
- *Zuhaitzak landatzen zituen gizona, 1994*: Paul Winter musikariarekin.
- *Hitaz oroit, 1996*: aurrerapauso nabarmena.
- *Auhen sinfonikoak, 1998*: Urte horretako Kilometroak bultzatzeko Enrique Ugartek

tzat eskertzekoa izaten da. Aurrera jarraitze-ko indarra eta motorra ere bada. Baina aldi berean, interesgarria da norbere egoari zeharka begiratzea.
—**Baina, egoa ez al da inoiz zauritzen?**
—Azken batez, egoari zeharka begiratzen baldin bazaude oso nekez min egiten dizu-

te. Ego guztia egoan geratzen zaigu, gauza politak entzun nahi ditugunean egoa aldare batean dagoela esan nahi du eta aldarean dagoenari harrikada bat ematen badiozu asko sentituko du.

—**Inoiz damutzeko egoerarik ez al duzu bizi?**
—Bizitzako une batzuetan, gauza bat edo beste dela eta erridikulu sentitzen duzu zeure burua. Une horiek oro har nire oroi-menetik ezabatu nahiko nituzke edo saiatu, behintzat.

—**Zertan edo norengan sinesten duzu?**
—Sineskeria, edo nahiago bada sinesmena, ariketa kultural bezala nahiko nefastoa da. Azken finean, benetako pertzeptzioa mutilatzen duen elementua baita sineskeria oro. Zuk zerbaitetan sinesten baduzu prestatu dizkizuten lenteen arabera ikusten duzu, nolabait lausoa edo. Ez duzu zeuk ikusten eta sineskeriekin hori gertatzen da. Batek zeozer sinesten duenean, sinisten duen hura itsuka jorratzen du. Beraz, ezin da behar bezala atzeman, ezin zaie gauzei askatasun minimo batekin begiratu. Argi utzi nahi dut: ez dut aholkatzen gure bizitza sineskeriatan oinarritzea.

—**Beraz, inorengan ez sinesten saiatzen zara?**
—Ez, ez, ez. Ez dut esfortzurik egiten ezertan sinesteko. Hoberena da gauzak ez sinestea, baizik eta norberak bere kabuz egiaztatu eta frogatzea. Sinesten dituzun lehenengo momentutik besteen esanetara makurtuko zara, fotokopia txar bat egiten ari zara. Hain zintzo izan beharrean, zu bizitza honetan zaude, ekipatuta zaude eta gauzak zure askatasun osoarekin ikus itzazu! Ez dago horren bidezko epairik egin behar, epailea dagoen lekuan autoritatea present dagoelako. Zerbait ona edo txarra dela epaitzerakoan, beste batek ezarritakoaren arabera egiten ari zara.

—Eta honi aurre egiteko modurik al dago?
— Agian, senari aukera gehiago ematea litzateke irtenbide posible bat.

—**Sineskera ez badugu oinarri, beldurrak menderatuko al gaitu?**
—Zezena aurrean baduzu atzera edo aurrerako keinua egin beharko duzu. Gauza bera gertatzen da eskua sutan jarri eta erredura sentitzen duzun unean: eskua berehala kentzen duzu. Baina hori beldurra ala inteligentzia ote da? Beldur nagusi bat dago gizartean: eta gero zer? Hau sineskeriak sortzen duen nolabaiteko ahultasuna dela uste dut.

—**Baina hori erantzunik gabeko galdera da, ezta?**
—Oso argi baldin badaukazu natura zarela.



“Urrian aterako dudan diskoan Krishna Murtiri diodan miresmena aitortu nahi diot kanta batean”

LABUR-LABUR

Izena: Benito Lertxundi
Jaitorria: Orio
Adina: 50 urte
Noiz hasi zinen kantatzen: 1965. urtean “La Voz de España”k antolatutako lehiaketan batean bigarren geratu zen.
Idazlerik gogokoena: Krishna Murti
Musikaririk gustukoena: Oso gustura belaunikatuko nintzateke Bachen aurrean.
Zinegile kuttunena: Bergman, Bertolucci eta Fellini
Film bat aukeratzekotan... <i>Amadeus</i> , hamasei aldiz baino gehiagotan ikusi dut.

Gizakiak, besteak beste, ahaztu baitu bera ere natura dela. Natura berreskuratzen duenean ez bakarrik pentsamenduz, baizik eta kontzientzia garbiarekin natura dela frogatzen duenean ere, hurrengo pauso bat ematen du. Hain zuzen ere, natura baldin banaiz eta natura jakintsua baldin bada, zergatik ez nago eroso naturak eman didan patuarekin? Beldur hori da gizakia etengabe daraman zama handia.

—**Zama horri aurre egiteko badago biderik?**
—Lema zalea ere ez naiz, baina zerbait esategatik oso betegarria den bat aipatuko nuke: bizitzarako eginak gara. Nolabait, oso ederki ekipatuak gaude bizitzarako eta arazoren bat edo beste etortzen denean nire

buruari arazoa non dagoen galdetzen diot maiz. Zergatik kostatzen zait hainbeste une honetan bizitzan aurrera joatea, bizitzarako egina baldin banaiz? Hau gogoan edukitzea funtsezkoa da eta gauzei berez dutena baino garrantzi handiagoa ez ematen saiatzen naiz.

—**Benito zoriontsu al da?**
—Zoriontasuna une konkretu batzuetan sentitzen den nolabaiteko anputasuna da, zerbait gustagarria gertatu zaizulako. Momentu horretan zure egoa gustura sentitu da. Zoriontasuna eta zorigaitza biak ere pendulu bat dira, gora eta behera dabilen pendulu bat da. Zorionak ondoan darama beti zorigaitza. Ez dago baretasun egoerarik. ^m

Hamar egun inguru baino ez dira falta Ibilaldirako. Maiatzaren 26an Euskal Herri osoko euskaldunek eta euskaltzaleek Getxoko kaleak beteko dituzte Bizkaiko ikastolen aldeko jaian. Egun hori beste ibilaldi luze baten amaiera izango da.



Ibilaldia 02

Hitzordua: maiatzak 26, Getxo

Testua: **Javier G. del Herrero** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Zaila da imajinatzea zenbat lan eman dezakeen Ibilaldi bat antolatzeak, zenbat denbora behar den edo zenbat jende lan egin behar duen, gerizpean, dena ondo atera dadin. Urte osoko lana da. Prestaketak maiatzean hasten dira (aurreko Ibilaldia bukatu amaitu bezain pronto) eta hurrengo Ibilaldiaren egun nagusira arte luzatzen dira. Ibilaldiaren eguna pasatu ostean ere, balantzea, memoria eta hainbat gauza gehiago egin behar izaten dira. Baina aurreko hilabeteetan egin behar den lana azter dezagun. San Nikolas Ikastolan eta Ikastolen Elkarteko egoitzan, Bilbon, Ibilaldia egunero-egunero baitabiltza lanean dena ondo atera dadin. Irakasleak eta beste profesionalez gain, jende gehiago ibili da behar-rean urte osoan zehar Ibilaldiaren inguruan. Antolatzaileen arabera ezinezkoa da zehazki jakitea zenbat lagun dabiltzan


Ibilaldiaren inguruan eta batzorde desberdinetan antolaturik musu truk lanean. Hala ere, 2.000 pertsona direla estimatzen da. Baina urte osoan zehar lanean ibili direnez gain, Ibilaldiaren egunean, arduradun eta boluntario gehiago topatu behar dira. Hala ere, lan handi honek ez zituen San Nikolas ikastolako arduradunak kikildu.


Ibilaldia Getxon antolatzeko asmoa aspaldikoa zen. San Nikolas Ikastolako arduradunek birritan aurkeztu zuten proiektua (1998an eta 1999an) baina ez zen aukeratua izan. Azkenik, hirugarrenean, 2001ean aurkeztutako proiektua izan zen Bizkaiko ikastolen onarpena jaso zuena. Ordutik hona gauza asko gertatu dira, bidea luzea eta gogorra izan da baina ikastolakoek badakite ezustekoei aurre egiten, izan ere, ikastolaren historia oztopoz beteta egon baita hasieratik.



Ezinezkoa da Ibilaldiaren antolaketan parte hartu duten guztien argazkia egitea. Goiko argazkia batzorde desberdinetako buruen batzar batean hartu genuen.

“2.000 lagun inguru dabilta musutruk lanean Getxon ospatuko den Ibilaldia antolatzen”





IBILALDIARI ADI. Azken hilabeteotan Getxoko euskal eragileek elkarlanean (Ikastola, Udala, Bizarra Lepoan, Bertsolari Eskola, dantza taldeak...) ekitaldi kultural mordoan antolatu dituzte Ibilaldia dela-eta. Ekitaldi horietako bat antzinako euskal ezkontza baten antzezpena izan zen. Apirilaren 28an Algortako kaleetan zehar egin zen.



Ibilaldiaren kanta eta bideoa

Aurtengo Ibilaldiaren abestia joan den apirilaren 29an aurkeztu zuten Bilboko Kafe Antzokian. Egileak Getxoko Gaizka Elosegia eta Jon Etxeandia musikariak izan dira. Elosegia eta Etxeandia San Nikolas ikastolako ikasleak izan ziren. Kanta laguntzen duen bideoklipa ere ikastolako ikasle ohi biren ardura izan da: Lurta Nikolas eta Iñigo Villanueva. Eta Asier Hormaza gure aktore handi eta ezagunaren laguntzarekin.



Ibilaldiaren bideoklipa apirilaren 27 eta 28an grabatu zuten Ikastolan eta herriko alde ezagunenetan. Hona hemen Portu Zaharrean hartu genituen irudi batzuk.



Ibilaldia 02 kanta

Badator Ibilaldia 2002an Getxora etorri gurekin ospatzen ikastolen jai handia. Erdu, ume-nagusiak, elefante eta dragoiak, maiatzaren 26an Getxon euskara soilik entzun dadila.

Lotu, lotu barik...

Ereaga, Arrigunaga, maldan gora Galeara lehorreko bihurtu zaigu karramarro beilegia. Ibilbidean buelta bi, ez etsi, epa, aurrera, hankak sendotzen joan ahala indartuko ditugu ikastolak ere.

Lotu, Lotu barik...

San Nikolas ikastola, ahalegin handiz sorturik, aurrerantz bultza dezagun geure nortasunari eutsiz. Iraganean jo ta ke, orain ez gaude geldirik, etorkizunean ere, San Nikolas ikastola Lotu barik.

Lotu, Lotu barik...



AURREKO IBILALDI GUZTIAK

- **1978, Getxo.**
- **1980, Durango eta Abadiño.**
- **1981, Bilbo.**
- **1982, Portugalete.**
- **1983, Lekeitio.**
“Euskararik gabeko Euskadi, kresalik gabeko itsasoa”
- **1984, Getxo eta Berango**
- **1985, Bermeo.**
“Kalera, lanera, euskara denera”
- **1986, Arrigorriaga.**
“Zirt zart, eskola euskaldun publiko bat”
- **1987, Zornotza.**
“Gurea gogoa, euskal eskola publikoa”
- **1988, Txurdinaga.**
“Euskaraz behin betiko”
- **1989, Muskiz.**
“Euskarak biltzen gaitu”
- **1990, Sopela.**
“Euskara ala ezkara”
- **1991, Gernika.** 35.000 lagun.
“Ikastola haustu euskararen eskola”
- **1992, Durango.** 72.000 lagun.
“Gure euskara lagun harturik, bihar-etzira hegaz goaz”
- **1993, Ondarroa.** 80.000 pertsona.
“Adi ibili hadi”
- **1994, La Peña.** 120.000 pertsona.
“Bilbon badabil, bada Bilbon zer dabil?”
- **1995, Santurtzi.** 100.000 lagun.
“Sinestezina”
- **1996, Trapaga.** 100.000 lagun.
“Barne barnetik”
- **1997, Leioa eta Getxo.** 120.000 pertsona.
“Beti betiko bizirik”
- **1998, Mungia.** 100.000 lagun.
“Erdu geugaz”
- **1999, Elorrio.** 100.000 pertsona.
“Aro berrian, ikastolak loran”
- **2000, Balmaseda.** 100.000 lagun.
“Mendez mende zubiak eraikitzen”
- **2001, Bilbo.** 120.000 lagun.
“Hemen da geroa”
- **2002, Getxo.**
“Lotu barik”



Gaur egun San Nikolas ikastolan ia 1.000 umek ikasten dute

“San Nikolas Ikastola 60ko hamarkadan sortu zen, euskararen aurkako garaian”

32. ORRIALDETIK DATOR

San Nikolas Ikastola 60ko hamar-kadan sortu zen, euskara eta euskal kulturaren aurkako garaian. 1963an, urte horretan herriko bederatzi fami-liak (ikusi 75. orrialdea) irakaskuntza zentroa eratu zutenean. Hasieran ikasgela eta andereño bakarra ziren eta hamabi ikasle baino ez. Oztopo ugari izan ziren baina gurasoen ahale-ginei esker helburua lortu zen eta urtetik urtera ikasle kopurua ugalduz joan zen. Gaur egun, Getxoko umEEK euskaraz eta euskal giroan ikas deza-kete. Guztira 881 ikaslek ikasten dute

gaur egun Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Biga-rren Hezkuntza mailetan. Guztiek ilusio handiz hartu zuten Bizkaiko ikastolen jaia antolatzeko ardura. Orain emaitza ikustea baino ez da falta. Datorren maiatzaren 26an Euskal Herriko euskaldun eta euskal-tzale guztiok Getxon elkartuko gara San Nikolas Ikastolaren jaia ospatze-ko eta diruz laguntzeko. Orain arte hainbat lagunek egindako lanari esker, egun handia izango da inolako zalantzarik gabe! m

KOLDO ORTIZ GOGOAN

Joan den Aste Santuan auto istripuz hil zen San Nikolas Ikastolako irakaslea zen Koldo Ortiz. Haren omenez hona hemen bere lankide batek idatziko bertsoak:

Gure maitea beti omen da berbera aldatzen dihoana maitatzeko era zeinek esan lezake erreza ez zela koldo maite genuen atzo gaur bezala.	Nahi ez genuen baina garaia heldu da era berri batean maitatzeko duda hain goxo bizi ginen berdin negu-uda poesia ere motz bihotza kexu da.	Zalaparta handirik egin ez duena berbaz leun, xuabe adieraziz dena Ikastolan isila harekiko pena Koldoren aulki hutsa oihu ozenena.
---	---	---

Josune Barrenetxea

Ibilaldiko langileak

Ibilaldia antolatzeko lan batzorde desberdinak ari dira lanean (begiratu ezkerreko zutabea) aspalditik. Batzorde bakoitza beste hainbat lagunek osatzen dute. Batzorde horiek guztiak Maider Martinezek koordinatzen ditu.



Maider Martinez, Ikastolen elkarteko Bilboko egoitzan

Maider Martinez > Ibilaldiko koordinatzaile orokorra

- Zenbat denbora behar da Ibilaldi bat antolatzeko?
- Urte osoa, eta gainera egunero ordu asko sartu behar dira. Zorionez jende askok laguntzen gaitu. Bestela, ezinezkoa izango litzateke.
- Zaila al da?
- Zaila baino gehiago neketsua dela esango nuke. Esan dizudan bezala, urte osoko lana da eta urtariletik hona, bereziki gogorra izaten ari da.
- Eskarmenturik zeneukan honelako beharretan?
- Bai. Iaz Abusuko Ibilaldia antolaten ibili nintzen, koordinazio lanetan.
- Parte hartze handia espero da. Josu Elortegik, San Nikolas ikastolako arduradunak, aurtin errekor berri bat ezarri daitekeela esan zigun...
- Eguraldiak laguntzen baldin bagaitu, lor dezakegu. Lekua polita da, ondo komunikatuta dago; metroa hor dago... Faktore horiek iazko errekorra gainditzen lagundu gaitzakete.
- Non jarriko dira aparkalekuak?
- Autobusentzat bi jarriko dira, bata Zugatzarten eta bestea Makaletako etorbidean. Autoentzako aparkalekua Arteako merkatalgunean jarriko dugu. Handik lantzaderak egongo dira.
- Zein aholku emango zenieke Getxoraino hurbilduko direnei?
- Garraio publikoa erabil dezatela. m

LAN BATZORDEAK

ARROPA
12 lagunek osatzen dute **Idoia Aranguren** buru duen talde hau. Euren ardurak: Ibilaldiaren leloa (“Lotu barik”) eta maskota (Ibiltxo karramarroa) gizarteratzea, arropa eta Ibilaldiko beste produktu batzuen salmenta.

IBILBIDEAREN ARDURADUNAK
Txosnak, trafiko eta aparkalekuekin zer ikusirik duen guztia **Josu Atxurra** arduraduna duen talde honen lana da. Baimenak eskatu, aparkalekuen aukeraketa eta antolaketa... Honez gain gune ezberdinen egiturak landu behar izan dituzte.

AURRE IBILALDIA, EKINTZA KULTURALAK
Ibilaldiaren inguru, eta “Ibilaldiari adi” kanpainaren barruan antolatzen diren kontzertuak, antzerki emanaldiak, pilota partiduak, tailerrak eta beste hainbat ekintza kulturalak dira talde honen ardurak. **Iñaki Osa** eta **Anton Alcocer** taldeko arduradunak dira.

HORNIDURA
Ibilaldiaren egunerako txosnetan salduko diren edariak eta janaria erosteko arduradunak dira hauek. Horniketarekin zer ikusirik duen guztia **Josek** eta **Iñakik** koordinatzen duten taldearen erantzukizuna da.

KOMUNIKAZIOA
Harreman publikoak, prentsaurrekoak, publizitatea, Ibilaldiaren irudia zaindu, komunikatuak plazaratu... Hauek dira besteak beste **Gotzon Muneta** buru duen 12 kideko talde honen ardurak.

DIRULAGUNTZAK
Dirulaguntzak lortzea, publizitatea saltzea eta gai hauekin zer ikusirik dauzkaten kontu guztiak talde honen ardurak dira. Taldeko ordezkaria **Joseba Arozena** da.

MARKETING & HARREMANAK
Talde honen ordezkarriak **Aitor Uriarte** eta **Iñigo Iturrarte** dira. Beraien ardurak prentsa, laguntzaile zein erakundeekiko harremanak egitea eta zaintzea dira.

EKONOMIA
Ordainketak, kobrantzak eta diru kontuekin zer ikusirik duen guztia **Xabier Errementeria** ordezkaria duen taldearen ardura da.

LAGUNTZAILEEN KOORDINAKETA
Ibilaldian eta Ibilaldia baino lehen behar diren laguntzaileak aurkitzeko ardura dute. Taldeko ordezkaria **Josu Ander Laka** da.



Gazte zoro haue

Betiko kontua da; nagusiak gazteen kexu. Gazteek asko edaten dutela, amazulo direla, ez daukatela etxetik alde egiteko asmorik edo lanean hasteko gogorik, ez dakitela ondo pasatzen... Denetarik esaten da gazteei buruz, baina gutxitan entzuten diegu: zer pentsatzen duten, zein arazo dituzten, zerk kezkatzen dituen edo zelan ikusten duten etorkizuna. Horrela izan ez dadin, Getxoko eta Leioako institutueta hurbildu gara.

Testua: Javi G. de Herrera Argazkiak: Asier Mentxaka



Ixone Etxebarria (Algortakoa)

Etorkizunean ~~l~~ageneritza egitea espero dut baina oraindik ez dakit zein motatakoa. Gazteen arazoak ~~B~~aditugu arazoa, noski, baina ez dakit zein izan daitekeen larriena. Eskolaz kanpo ~~A~~steburuetan Bilboko Zazpi Kaleetara joaten naiz. Zinea ere gustuko dut baina oso garestia da. Herriko gazteontzako gaztetxe bat zabaltzea gauza ona izango litzateke. Paga: 7 euro baino ez. Zorionez amamak diru gehiago ematen dit eta horrekin konpontzen naiz. Etxera bueltatzeko ordu ~~di~~ eta erdiak.

Mikel Goñi (Getxokoa)

Etorkizunean ~~K~~arrera teknikoren bat egiteko asmoa daukat komertzioaren munduan lan egiteko. Gazteen arazoak ~~A~~steburuetan ez dakigu nora joan, zer egin, zelan pasatu aisi denbora... Eskolaz kanpo ~~L~~agunekin ateratzen naiz bueltak ematera, zerbait hartzera. Paga: Ez didate pagarik ematen. San Mameseko barran lan egiten dut eta partidu bakoitzeko ordaintzen dizkidaten 12 euroekin konpontzen naiz. Etxera bueltatzeko ordu ~~j~~airik edo egun berezirik ez bada, laurak arte uzten didate.



badituztela. Honez gain, sarritan gazteak ezutertuak sentitzen dira. Baina zergatik edaten dute gazteek? Hor egon liteke gakoa; agian galdera horri erantzun beharko genioke gazteak eta gazteen arazoak ulertu ahal izateko. Gehien entzuten diren kritikak zera dira, asko edaten dutela edo ez dakitela dibertitzen, baina gazteren batek esan zigun bezala, dirudienez, alternatibak eskaintzea ez da kritikatzeko bezain erraza eta gazteen kezkek entzutea ez da beraien jarrera zigortzea bezain eroso. Hurrengo erreportajea egin ostean ondorio batzuk atera ditzakegu. Gazteak orokorrean aspertu egiten dira. Edan beharrean beste gauza batzuk egin nahiko lituzkete baina gizarteak ez diela alternatibarik eskaintzen uste dute. Udalek ekintzak antolatzen

dituzte nagusientzat, baina ezer gutxi gazteentzat eta eskaintza falta honek beste gauza batzuk egitera eramaten ditu. Hortik etor litezke aipatutako beste hainbat arazo. Aitzakia pobrea dirudi baina dibertitzeko ea zer egiten duten galdetu genienean, erantzunak antzekoak izan ziren beti: tragoak hartu, Zazpi Kaleetarara joan...; eta pazientzia handiaz erantzuten zuten askotan, beste zerbait egin nahiko balute bezala. Agian gazterien arazo guztiak batera bil daitezke: komunikazio arazo. Agian, gazteei lotsa ematen die dituzten kezkek adieraztea eta nagusiek ez dute entzuteko gogorik. Beraiek diotenaren arabera, arazoa hori izan liteke. Ados egon gaitzke edo ez, baina interesgarria iruditzen zaigu kontatu zigutena jakinaraztea. ^m




Ander Basaldua (Algortakoa)

Etorkizunean ~~B~~adakit ez dela erraza izango baina arkitektura ikasi nahiko nuke. Gazteen arazoak ~~E~~z daukagu egiteko gauza handirik. Eskolaz kanpo ~~A~~steburuetan Algortan geratzen naiz. Zazpi Kaleetan baino giro gutxiago dagoen arren, nahiago dut hemen gelditu. Paga: 12 euro ematen dizkirate eta ez da gauza handirik egiteko heltzen. Berehala gastatzen da. Etxera bueltatzeko ordu ~~E~~z didate ordurik jartzen baina normalean ez naiz berandu heltzen.

Ana Díaz (Leioakoa)

Etorkizunean ~~B~~EFn sartzea oso zaila denez, Kirol modulu bat egiteko asmoa daukat. Gazteen arazoak ~~g~~arraio falta da daukagun arazorik larriena. Eskolaz kanpo ~~A~~stean zehar mutil lagunarekin egoten naiz eta aerobik egiten dut. Orain dela gutxi Gurutze Gorriko titulua atera dut. Paga: Sei edo zazpi euro. Etxera bueltatzeko ordu ~~E~~z daukat ordu zehatzik, baina hirurak aldera bueltatzen naiz.





Aritz Trapaga (Leioakoa)

EtorkizunearGraindik ez daukat batere argi. Informatika agian...
Gazteon arazoakHerriak ez dauka gazteak ondo pasatzeko tokirik, ez da gazteentzat ezer antolatzen...
Eskolaz kanpoAstean zehar futbolean jokatzten dut eta asteburuetan lagunekin ateratzen naiz.
Paga:40 euro ematen dizkidate astero.
Etxera bueltatzeko ordea daukat. Nahi dudanean bueltatu naiteke.

Cristina Diez (Leioakoa)

EtorkizunearMedikuntza ikasi nahi dut. Gazteon arazoakUdalak ekintza ugari antolatzen ditu nagusientzat baina gazteontzat ez. Asteburuetan ez daukagu ezer egiteko.
Eskolaz kanpoPianoa jotzen dut musika eskolan eta asteburutan Zazpi Kaleetara edo Portugaletara joaten naiz lagunekin.
Paga:Ez didate diru kopuru zehatzik ematen, nire beharren arabera. Normalean 20 euroekin (astero) konpontzen naiz.
Etxera bueltatzeko ordea didate jartzen. Zentzu horretan ama oso liberala da.



Julen Garcia (Leioakoa)

EtorkizunearIngeniaritza informatikoa. Gazteon arazoakHemen ez dago zer eginik eta ez daukagu herri garraiorik hortik ateratzeko.
Eskolaz kanpoAsteburuetan Bilbora joaten naiz lagunekin. Astean zehar saskibaloian aritzen naiz eta musika eskolan saxfoia ikasten nabil.
Paga:10 euro ematen didate astero.
Etxera bueltatzeko ordea daukat ordurik baina goiz bueltatzen naiz (lauretan, bostetan...), igandero saskibalo partiduak jokatu behar ditut eta.

Udane Magunazelaia (Algortakoa)

EtorkizunearOsasun saileko zerbait egingo dut; odontologia, fisioterapia... Oraindik ez dut erabaki. Gazteon arazoakNagusiek beti esaten dute ez dugula edan behar, baina inork ez digu esaten zer egin dezakegun gure denbora librean.
Eskolaz kanpoAstebururo, gehienok egiten dugun bezala, Bilbora joaten naiz lagunekin. Astean zehar ingelesa ikasi dut eta boley-a jokatzten dut.
Paga:Ez didate paga zehatzik ematen; behar dudana. Amamak ere dirua ematen dit.
Etxera bueltatzeko ordua:eta erdian baino beranduago ez naiz sekula bueltatzen.



Indar Zabala (Getxokoa)

EtorkizunearIrakasle izateko ikasiko dut, edo beharbada, goi mailako graduren bat . Gazteon arazoakEz dakit. Ez pentsa ez dugunik baina orain ez dakit zer esan.
Eskolaz kanpoErrugbian jokatzten dut eta lagunekin ateratzen naiz, zinemara, tabernetara...
Badaukagu txoko bat, bertan lagunok astean zehar zein asteburuetan elkartzten gara.
Paga:25 euro.
Etxera bueltatzeko ordea daukat ordurik. Nahi dudanean heldu naiteke.

Janire Vidal (Leioakoa)

EtorkizunearBeharbada ingeniaritza... Gazteon arazoakGarraio publikorik ez dago eta gidabaimenetarik ez daukagunez, ezin gara herritik irten.
Eskolaz kanpoAstean zehar ikasten dut eta asteburutan dantzatzerara joaten naiz herriko tabernetara.
Paga:Niri oso diru gutxi ematen didate; zortzi euro baino ez.
Etxera bueltatzeko ordea didate jartzen baina ez naiz sekula bueltatzen goizeko seiak baino beranduago.



Naiara Ros (Erromokoa)

EtorkizunearIrakaslea izan nahi dut. Gazteon arazoakEz dago ateratzeko leku askorik eta astebururo betiko lekuetara joan behar izaten dugu betiko gauzak egitera.
Eskolaz kanpoLagunekin atera, zinemara joaten naiz... Astean zehar, pianoa jotzen ikasten nabil.
Paga:20 euro astero, bankuan apur bat gehiago sartzen didate mugikorra kargatzeko edo opariak egiteko.
Etxera bueltatzeko ordea zigortuta ez banago edozein ordutan buelta naiteke.

Aner Toscano (Algortakoa)

EtorkizunearGoi mailako moduluren bat egin nahi dut; agian, komunikazioa . Gazteon arazoakNagusiek ez digute ulertzen, ez daukagu gaztetxerik edo biltzeko tokirik. Eskolaz kanpo:Astebururo Bilboko Alde Zaharrera joaten naiz lagunekin. Bestetik, errugbian jokatzten dut.
Paga:15 euro astero. Gehiena mugikorrean eta lagunekin gastatzen dut.
Etxera bueltatzeko ordea didate ezer esaten baina, gurasoak ez haserretzeko-eta, nik badakit zer ordu arte geratu naitekeen.



Arene Albizu (Erromokoa)

EtorkizunearTurismo egingo dut, bidaiatzea izugarri gustatzen zait eta. Gazteon arazoakGazteok gehiegi edaten dugula entzuten dugu beti baina egia esan, ez dago eskaintza handirik.
Eskolaz kanpoEgon daitezken kontzertuetara edo Bilboko Zazpi Kaleetara joaten naiz lagunekin. Astean zehar egunero akademira joaten naiz.
Paga:20 euro eta amamak beste zazpi.
Etxera bueltatzeko ordea didate ordurik jartzen, baina normalean ez naiz berandu bueltatzen.

Nuria Amorrortu (Erandio Goikoa)

EtorkizunearDatorren urtean gor-mutuen hizkuntza ikasteko modulu bat egingo dut. Gazteon arazoakGarraioarik ez dago Erandio Goikora joateko eta ateratzen naizenean, gurasoek bila etorri behar dute.
Eskolaz kanpoMusika ikasten dut: euskal dantzak, panderoa, soinua, txalaparta...
Paga:Ez daukat pagarik. Dirua behar dudanean eskatzen diot amari eta behar dudana ematen dit.
Etxera bueltatzeko ordea daukat ordurik.



Alex Rayón (Leioakoa)

EtorkizunearDatorren urtean informatika ikasiko dut. Gazteon arazoakEz dago garraiorik gauez ateratzeko. Metroa ondo saldu dute, baina eskaintzen duten zerbitzua oso txarra da. Eskolaz kanpoLagunekin ateratzen naiz beti. Asteburuetan Zazpi Kaleetara joaten gara eta astean zehar Leioan daukagun areto batean elkartzten gara.
Paga:Oso gutxi ematen didate; 12 euro baino ez.
Etxera bueltatzeko ordea daukat.

Naia Kortabitarte (Getxokoa)

EtorkizunearDatorren urtean kirol irakasle izateko ikasi nahi dut. Gazteon arazoakGizartearen itxurakeria eta elkar ulertzeko ezintasuna. Horiek dira larrienak. Eskolaz kanpoKontzerturik badago, hara joaten naiz beti eta neguan, jairik ez dagoenean, kirola egiten dut. Korrika egitea asko gustatzen zait.
Paga 20 euro. Horrez gain, lan egiten dut umeak zaintzen, horrela ondo pasatzeko nahikoa ateratzen dut.
Etxera bueltatzeko ordea didate jartzen; neuk erabakitzen dut.






AS FAR AS YOU WANT, 2002



JOUK ETA NEUPER, 2000



ROBER ETA CHARLI, 2002


Fotografiak Iker Elorriaga

1997an bere lehenengo kamara erosi zuen Iker Elorriagak (Getxo, 1977): Canon AE-1. Carlos Terrerosek eta Luis Martínez *Rastak* irakatsi zizkioten fotografiaren oinarritzko teknikak. Ez da profesionala, lanbidez informatikoa da eta. Irudi Taldeko kidea ere bada eta han biltzen den jendearekin ikasten jarraitzen du gaur egun. Aurten bere argazkiak fotografia talde horrek urtero

antolatzen duen erakusketan ikusi ahal izan dira. Errealitatea eta esperientziak transmititzeko oso bide egokia deritzo fotografiari, bere ustez sarritan argazkiek hitzek baino modu zuzenagoan azaltzen baitituzte sentsazioak. Batez ere, erretratuak eta hiri paisaiak fotografiatzea gustatzen zaio. Ondoko argazkiak horren adibide dituzue.



IKER ETA LAGUNAK, 2000



SEMAFOROA, 1999



UDAN SAN NIKOLAS PLAZAN, 2000



NESKATOA MARIA CRISTINA PARKEAN, 2000



MOXUA, 2000



REICHSTAG, 2002

Zinemazaleak Unai Angulo

Alex de la Iglesia zuzendariak Almerian historiako lehen **marmitako-westerna** filmatu berri du. Errodajearen azken egunetan hantxe egon zen Unai Angulo zinemazale getxoztarra



800 balas, horixe da Alex de la Iglesia zuzendari bilbotarraren azkeneko filmaren titulua. Pelikulan Sancho Gracia eta Carmen Maura dira protagonista nagusiak, Almerian grabatu zen otsailean eta martxoan zehar eta western itxura daukan arren, Alex de la Iglesia *marmitako-western* bat dela dio. Genero berri hau zertan datzan ulertzeko eta filmaketaren beste hainbat bitxikeria ezagutzeko, Unai Angulo getxoztarrarekin elkartu gara, bera Almerian, filmaketa ikusten egon baita bere laguna den Imanol Nabea kamarak eta lan talde teknikoko kideek konbidatuta.

Zinemazale handia
Zinemazale handia da Unai eta *800 balas*-ena ez da ikusi duen lehenengo grabaketa, orain dela gutxi Galesen egon baitzen Ingrid Rubiok protagonizatu duen *Viaje de ida y vuelta* filmaren errodajea ikusten. Baina Almerian, *800 balas*-en grabaketa ikusteaz gain, Unaik filmaketan ere parte hartu du extra moduan. “*Oso esperientzia polita eta aberasgarria izan da*”, kontatu zigun Unai gazteak. “*Gu (bi lagunekin joan zen Unai) sekuentzia batean agertzen gara turistarena egiten, poliziak eta herritarren arteko iskanbilak ikusten. Baina ez dut uste filmean aterako garenik. Oraindik*



Argazki handian, Unai Angulo; argazki txikiak Almeriako errodajearen hartutakoak dira.

muntaketa falta da eta sekuentzia batzuk kenduko dituzte. Baliteke gurea horietako ba izatea”. Baina nahiz eta pantaila handian ez agertu, baikortzat jotzen du Unaik esperientzia hau. “*Filmaketaren bukaera ikusi genuen, lan taldean zegoen giro onaz*

«Sekuentzia batean extra moduan, turistarena egin zuen Unaik»

ohartu ginen eta harremanak egin genituen, zuzendaria, aktore zein espezialistekin. Lau egun baino ez ziren izan, baina biziak benetan”. Filmaren estreinaldiak oraindik ez du data zehatzik baina Unaik zerbait aurreratu zigun: “*Muntaketa Alexek espero duen bezala baldin badoa, uda ostean estreinatuko dute*”. m



Razziak txarrenentzako sariak



Tom Green-ek aurtun lau Razzi jaso ditu, besteak beste, aktore eta zuzendaririk txarrena izateagatik (goian) Sylvester Stallone sarritan saritu izan dute Razzietan, izan ere, 80ko aktorerik txarrena izendatu zuten (behean)

Azken urteotako filmik txarrenak

- 1990 “STAR TREK V”
- 1991 “LAS AVENTURAS DE FORD FAIRLANE”
- 1992 “EL GRAN HALCÓN”
- 1993 “RESPLANDOR EN LA OSCURIDAD”
- 1994 “UNA PROPOSICIÓN INDECENTE”
- 1995 “EL COLOR DE LA NOCHE”
- 1996 “SHOWGIRLS”
- 1997 “STRIPTease”
- 1998 “EL MENSAJERO DEL FUTURO”
- 1999 “BURN HOLLYWOOD BURN”
- 2000 “WILD WILD WEST”
- 2001 “CAMPO DE BATALLA, LA TIERRA”

Urtero Razziak edo **antioscarrak** banatzen dira aktore zein film txarrenak saritzeko

Aurreko alean zorioneko Oscarrei buruz luze hitz egin bagenuen, oraingo honetan, *Antioscarrak* edo *Razzi* izeneko sariei buruzko bitxikeria batzuk jakinaraziko dizkizuegu. Sari hauek urteko film eta izar txarrenei ematen zaizkie Oscarren gau magikoaren bezperan ospatzen den jai zoro batean. Jeneralean sarituak hara biltzen ez badira ere, aurtun aktorerik txarrena izendatu zuten Tom Green hantxe azaldu zen bere sariaren bila. Izan ere, sari hauek oihartzun handia lortzen ari dira azkeneko urteotan. Sylvester Stallone aktorerik sarituena (edo zigortuena, zelan ikusten den) izan da Razzietan. Errekorra berak dauka: orain arte, zortzi sari eman zaizkio. Stallone bera 80ko hamarkadako aktorerik txarrena ere izendatu zuten, eta Bo Derek aktoresarik txarrena. Madonna eta Kevin Costner ere, sarritan izendatu dituzte.

Aurtengo irabazleak hauek izan dira: Tom Green *Freddy got fingered* filmagatik eta Mariah Carey *Glitter* izenekoagatik, aukera gehien zituzten Penélope Cruz eta Jennifer Lopez-en aurretik. Aurtengo pelikularik txarrena Tom Green-en *Freddy got fingered* hautatu dute. m

weborrialdeak

www.efrance.fr/oo7
cinefilm/index2.asp

Datu base ona. Irudi gutxi dituen arren, filma eta artista ugari oinarritzko fitxak eta filmografiak (biografiarik ez) biltzen ditu. Garai eta mota guztietako pelikulen kartelak aurkitu daitezke.

www.bdcine.com

Zinearen munduko profesionalentzako (edo profesionala izatera heldu nahi dutenentzako) web; lana lortzeko dagoen onenetarikoa: ekoizleak, zuzendariak, enpresak eta beste hainbat zerbitzu.

www.ibaia.org

Ikus-entzunezkoen euskal ekoizleen elkartearen web orrialdea da. Ekoizle bakoitzaren historia eta lanak topatu daitezke bertan. Ekoizle ezberdinen telefonoak eta helbideak ere dakartza.

Loli Astoreka > Aktorea

“Jende gehienari bezala, izugarri gustatzen zait ondo bizitzea”



Argazkian, Loli Astoreka

18 urterekin hasi zen antzerkian eta harrezkero Lolik ez dio lan egiteari utzi antzerkian zein zinean zein telebistan. Goenkale saioak ezagunago bihurtu zuen. Pantaila handian gutxitan ikusi duzu, Pecata minuta eta Pídele cuentas al rey izan dira egin dituen azken filmak. Aurten batez ere antzerkia egiten ari da, orain giran dabil Aitzpea Goenaga eta Elena Iruetarekin Hau paradero komeria antzezten.

—*Comicos de la legua* antzerki taldean hasi eta ordutik euskal antzerkiko hainbat taldetan ibiltzeaz gain, *Ubú emperatriz* eta *Bilbao Bilbao* muntaietan egin duzu lan, besteak beste. Hala ere, gaur egungo zure ospea *Goenkale* teleaioari zor diozula esan daiteke?

—*Goenkale*-n hasieratik ibili nintzen eta

ezaguna izatea saioi honi zor diodala argi dago, baina hau bezain garrantzitsuak izan diren beste hainbat lan ere egin ditut. —Horietako gehienak antzerkian egin dituzu, baina, lehen esan dugun bezala, telebistan eta zinean ere ibili zara; zein duzu gustukoen?

—Hirurak. Ezberdinak dira baina hirurak gustatzen zaizkit. Antzerkian hasi nintzen eta bat aukeratu beharko banu, hau aukeraturako nuke zalantzarik gabe; baina hone-tatik soilik ezin da bizi eta gauza gehiago egin behar dira ondo bizitzeko, eta niri, jende gehienari bezala, izugarri gustatzen zait ondo bizitzea.

—Badago inor edo zerbait zure karrera markatu duenik?

—Bai, noski: nire lankide guztiak. Guztiekin eta guztietatik ikasi dut zerbait. —Egin dituzunen artean, zein da gehien gustatu zaizun papera?

—Denak. Normalean aktoreok beti gel-

ditzen gara egin dugun azkenarekin baina denak gustatu izan zaizkit. Telebistan, *Goenkale*-koa adibidez, edo *Policías*-en egin nuen Lolarena, nahiz eta laburra izan zen. Antzerkian eta zinean Ramón Barearen *Pecata minuta*-n egin nuena... Egia esan, ezin izango nuke bat aukeratu. —Derrigorrezkoa da Madrilén bizitzea lana lortzeko zinean edo telebistan? Joseba Apaolazak, adibidez, baietz esaten zigun...

—Ez dut uste derrigorrezkoa denik. Lagun-garria izan daiteke, baina nik, esaterako, Madriléko etxea saldu eta lanean jarraitzen dut. —Hainbeste lan egiten denean, batzue-tan gauza batzuk baztertu egiten dira edo, nahi gabe, alde batera uzten ditugu. Gertatu zaizu?


—Ez dakit..., baliteke. Baina inoiz egin izan badut, ez da nahita izan, seguru. Beti saiatzen naiz nire inguruko gauzak eta pertsonak zaintzen.

“Beti saiatzen naiz nire inguruko pertsonak eta gauzak zaintzen”

—Hurrengo proiektuak...

—Gaur egun antzerkian buru-belarri sartuta nabil *Hau paraderua* antzezlanarekin. Etorkizunera begira telebistan, *Teila-tupean* telesailan berriro lan egiteko as-moa daukat. Baina, egia esan, ez dakit telesailak jarraituko duen ala ez. —Horrenbeste gauza egiteko denborarik izaten al duzu?

—Bai noski; lan egiteko gogorik edukiz gero, beti ateratzen da denbora. Antzerkia adibidez, asteburuetan izaten da eta tele-bistako teleaioak, berriz, astean zehar grabatzen dira. Bateragarriak dira antzerkia eta telebista. m



Ismael Etxebarria Sopelanako olerkaria


Olerkiak deitzen da Sopelanako udalak argitaratu duen Ismael Etxebarriaren olerkien bilduma. Ismael Sopelanan jaio zen 1927an eta bertan bizi izan da beti. Gizon ezaguna da herrian eskolako atezaina izan baita oraintsu jubilatatu den arte. Elektrikaria eta ajustadorea ere izan da, baina euskaldun peto honen benetako pasioa idaztea izan da beti. 1943an hasi zen eta geroztik chunka olerki idatzi ditu, beti ere euskaraz. *“Euskararen erabilpena atzera doala iruditzen zait niri; bai Sopelanan eta baita ere Euskal Herri osoan”*, azaldu zigun Ismaelek. Gure hizkuntza bul-

tzatzeko nahian euskaraz idatzi behar dela uste du eta eginetan agertzen du berak: *“Beti euskaraz eta beti ere euskara eta Euskal Herriaren alde idazten dut; gure luraren alde baina inoren kontra egin barik, inor ez haserretzeko”*. Azken zazpi urteotan bere lanak udal jaietako egitarauan agertu izan dira eta kultur zinegotzia izan zen olerkiok bildu eta liburu bat argitaratzeko ideia eman ziona. Sopelanako er-serki berriaren letraren egilea ere bada (musika Carlos Ibarrak konposatu du). m

Olerkiak liburua eskuratzeko, Sopelanako Kultur Etxea: 94 676 39 16

liburuak

Pulp
Charles Bukowski
Txalaparta



Charles Bukowski idazle eta kazetari alemaniarren azken eleberria da “Pulp”. Idatzi eta handik gutxira hil zen, 74 urte zituela. Poesia eta prosa ugari argitaratzeaz gain, asko edaten zuen eta bakean utz zezatela, besterik ez zuen eskatzen. Bere bizipenak, arazoak (emakumeak, alkohola...) eta zaletasunak bere idazkien gai nagusiak izan ziren eta “Pulp” ez da salbuespena.

Zeta
Alessandro Baricco
Igela



Alessandro Baricco (Torino, 1958) idazle italiar ezagunaren azkeneko lan honek, zeta negozioen aitzakia aprobetxatuz, maitasun istorio liluragarri batean barneratzen gaitu. Istorio eder bat maisu baten eskutik. Baricco eskarmentu handiko idazlea da, besteak beste berak idatzikoak dira “Castelli di rabbia” (1991), “Oceano mare” (1993) edo antzerki eta film bat egiteko oinarri izan zen “Novecento”. m

esaterikbadut

Esti Ezkerra

Biografiaren itzalean

Biografia pertsonalak sormen lana gainditzen duenean zerbait gaizki doan seinale. Beti pentsatu izan dut literaturan liburuek idazlearen izenean hitz egin behar zutela eta ez alderantziz, baina Madril aldean ez ei dute gauza bera uste. Zalaparta handia sortu du han Joseba Sarrionandiaren *Lagun izoztua*-k kritika saria jaso izanak. Pilar del Castillo Kultura ministroa garra-sika hastetik gertu egon da idazlearen ibilera estraliterarioen berri izan duenean (agian, horrela hasi zaie saria eman duten burugabeei). Eta okerre-na da kulturaren izenean ari diren horiek ez dutela Sarriren liburu bat bera ere irakurri. Berdin die.

Orain dela aste batzuk Frantzi-antzerki gertaturikoa ekarri dit gogora. Bat-batean hango gobernuak Ferdinand Celinek idatziriko oro estatuaren esku egon behar duela erabaki du, Proustekin batera (orain) frantziar letretako maisua denak halaxe merezi baitu. Bere ideia politikoen-gatik erbestera bidali zuten Celine bera. Gaur egun bada idazlea; lehen ez. Ziur aski Sarrionandia ez da sekula seme kuttun izendatua izate-ra iritsiko Madrilén, baina bitxia da nola komenientzien arabera deabru izatetik aingeru bilakatzer-a igaro daitekeen bat.

Portziet-ko, kritikaren sari emate horretan Kirmen Uribe nabarmendu da poesia arloan, eta, hil honetan bertan, saria jasoarazi dion liburuaren gainean eginiko ikuskizuna ekarri du Getxora. Orain hilabete batzuk Bilboko Kafe Antzokian Uriberen lana ikusteko parada eduki nuen –Piztiak-eko Txomin Uribek eta Josu Aranbarri margolariak ere parte hartzen dute bertan–, eta zinez ederra iruditu zitzaidan. Irakurzalearen txo-koak ezin zuen ikasturtea amaitzeko modu egokiagorik aukeratu. m

Albert Plá > Kantaria

“Ez nintzateke sekula polizia izango, are gutxiago kazetaria”



Argazkietan, Albert Plá musikaria

Albert Plá (Girona, 1966) bakarlari katalana egun dagoen artista eztabaidatu eta berritzaileenetakoa dugu. Basakeria xamurrezko mundu berezia xuxurlatzen digu bere disko eta kontzertu guztietan. Bajo Ulloaren *Airbag* filmean apaizaren papera antzeztu zuen. Denok gogoratuko dugu putetxean *Soy rebelde* kantatuz agertzen den eszena. Plá definitzea zaila da: bufoia, zirikatzailea, lotsatia, ironikoa... Oraintsu *¿Anem al lit?* (*Ohera joango al gara?*) diskoa argitaratu berri du.

—Nola konektatzen du iparraldeko jendeak rumbekin? Musikak ez al du muga geografikorik?
—Mendebaldearen ekialdean gaude, iparraldearen hegoaldean eta hego-ekialdearen ipar-mendebaldean; katalanak gara.
—Egia da ez dagoela mugarik. Hau argi utzi zenuen Oskorriekin batera euskaraz abestuaz...
—Eszenatoki batean bizi izan dudanez hunkigarrienetako bat izan zen hura.
—Zure abesti berriak helduentzako sehaska kanta bezala definitu izan dira. Helduek hainbeste amets gaizto ote ditugu?
—Ikusirik inork ez duela esnatu nahi, ba,

amets goxoak izan ditzatela, behintzat.
—Artista guztiek inspirazio iturri eta konposatzeko era pertsonalak dituzue. Zein da zurea?
—Beste abeslari batzuk plagiitzen ditut. Eta nabaritu ez dadin pixka bat txarto abesten ditut kanta eta inor ez da ohartzen.
—Albert Plá abeslari ahogaizto eta gordina da. Honek noiz edo noiz bere kalteordaina ekarri dio. Hala nola, bere diskoeak *La dejo o no la dejo* kanta plazaratzeari ezetza eman zion “terrorista” zela-koan. Hala ere, 1997. urtean kaleratutako diskoan kanta honek argia ikusi zuen. Denbora igarota, zein iritzi duzu zentsura horri buruz?

—Zentsuratu egin al zuten? Ez nekien.
—Zure letretan sexua konstante bat da, hain inspirazio ona al da?
—Maitasuna da, ez sexua.
—Eta drogei buruz zer iritzi duzu?
—Garestiak direla.
—Esaten da Plák, eszenatokira igotzean, ezarritako pertsonaia baten arabera jokatzeko duela. Noraino da egokia edo desegokia baieztapen hori?
—Nik baietz uste dut, pertsonaia dela. Baina ez nago ziur.
—Anarkismoaren ikonoa bilakatu omen zara. Gaur egun zaila al da zeure ideiei eustea eta etengabe korrontearen aurka joatea?
—CNTtik bota ninduten.
—Elkarrizketatzaileen artean ez duzu ospe ona, lana zail xamar jarri ei diezu. Kazetaria bazina nola elkarrizketatuko zenuke Albert Plá?
—Ez nintzateke sekula polizia izango, putakumea ere ez naiz, eta are gutxiago kazetaria.

Argi utzi digu fama hori aski merezia duela, baina Plá artistak egiten du. Hitz joakoak, ezohizko esakerak, zentzu bikoitzeko hitzak, esaldi irauliak..., guztia ironia puntu batekin nahastuaz abeslari honen erantzunak behar bezala ulertuko ditugu. Izan ere, etengabe jolasean dabil, eszenatokian zein elkarrizketetan. Eszentrikoa eman dezakeen arren mundu ikuskera ezberdina duela erakusten du. Bakarra da, imitaezina. m



Erradiografia



Hiru Beltz dira: Igor Falcón, David Gandara, Pino Almagia, Urko Zuloaga eta Jon Ander Garamendi.

Izena: *Hiru Beltz*. **Nondik dator izena?** Behin Zarautzen, taldeko euskaldun berri batzuk txosna batera hurbildu eta “hiru tinta” eskatu zituzten. Barrakoak hiru beltz esaten zela adierazi zien eta horrela bataiatu zuten taldea. **Jaio ziren:** 1996an. **Nongoak dira:** Guztiak Getxokoak. **Taldeko kideak:** Hasieran sei kide ziren (abeslari bi zituzten), baina gaur egun bost gelditzen dira; Igor Falcón eta David Gandara (gitarrak), Pino Almagia (bateria), Urko Zuloaga (ahotsa) eta Jon Ander

Garamendi (baxua). **Gustuko dute:** “Metallica”, “Su ta gar”, “Latzen” eta euskal rocka orokorrean. **Diskografia:** Oraindik ez dute diskorik argitaratu. **Besteak beste, jo dute:** Euskal Herri osoan, Bilboko jaietan... **Euskal musikaren egoera:** “Apur bat geldirik ikusten dugu. Guk gustuko ditugun rock taldeek ez dute ia diskorik ateratzen”. **Hizkuntza:** Euskaraz abesten dute. m

Harremanetarako:
www.hiru_beltz.tripod.com


diskoak

Salatzan dut
Ekon
Gor



Soinu metaliko eta elektronikoen arteko uztarketa indartsua. Talde arrasatearraren hirugarren lan honek, izenak iragartzen duen bezala, gai sozialak jorratzen ditu. Ekoizpen lanetan S.A.taldeko Jimmy ibili da eta kolaboratzaileak ere ez dira makalak: Kashbad-eko Sorkun, Selettah Kolektiboko Zigor...

In between
Jazznova
Satélite K



Asko itxaron behar izan dugu disko hau entzuteko, 2000ko udaberrian ateratzekoa baitzen. Jazz elektronikoa garaikidearen jarraitzaileentzat ezinbesteko lana da. Berlineko proiektu honek hainbat bitxi gordetzen ditu bere baitan, besteak beste, Viktor Duplaix edota Galliano bezalakoen kameoak.

Popemas
Nosotrás
Elefant



Hogei abesti labor. Askorentzat estatuko poparen musak. Aurreko lanarekin *-Mi vida en un fin de semana-* kritikaren goraipamenaz gain, jarraitzaileetsuak ere lortu zituzten. Oraingoan eurak idatziriko poemetan oinarritu dira soinu minimalista izugarria sortzeko. Ekoizpen lanetan Ibon Errazkin handia.

> Nire kanta kutunak LA OTXOA*




NIRE BIZITZAKO ERDARAZKO KANTARIK KUTUNENAK!!

01. Serrat “Mediterraneo”
02. Mari Trini “Amores”
03. Mocedades “Eres tú”
04. Rocio Jurado “Señora”
05. Raphael “Hablemos de amor”
06. Pink Floyd “The wall”
07. Adamo Olympian egin zituen kontzertuetako edozein
08. Liza Minelli “Cabaret”
09. F. Sinatra “New York, New York”
10. Mina “Amore mío”

EUSKARAZKO KANTARIK ONENAK

01. Estitxu “Agur Maria”
02. Oskorri “Aita-semeak”
03. Oskorri “Euskal Herrian euskaraz”
04. Itoiz “Lau teiltatu”
05. Benito Lertxundi “Oi ama Eskual Herria”
06. Benito Lertxundi “Bizkaia maite”
07. Mikel Laboa “Txoria txori”
08. Kepa Junkera “Madagaskar”
09. Ruper Ordorika “Fas Fatum”
10. Gontzal Mendibil “Iparragirre”

webgida



INTERNET HEMEN ETA ORAIN
> www.google.com/press/zeitgeist.html

Google bilatzaile miragarriak (bai, miragarriak) noizean behin Interneteko egoeraren berri ematen digu Zeitgeist izeneko dokumentuetan. Puri-purian zer dagoen jakiteko ezinbestekoa suertatzen da.

Hizkuntza: ingelesa.


ATOMIC TIME
> www.dualitysoft.com

Erlojura begira. Fida zaitezke bertan ikusten duzunaz? Zure paranoikotasunaren arabera egongo da. Baina, benetan erloju zehatza nahi izanez gero, sartu orrialde honetara eta instalatu bertatik eskaintzen duten programa (DSClock). Hortik aurrera, ordenadoreko erlojua egunero erloju atomiko batekin eguneratuko da.


Hizkuntza: ingelesa.

TI-TA
> www.ti-ta.net

Moderno-moderno. Batek daki zer esango lukeen aitonak bilbotar hauek egiten dutena ikusiko balu! Arte-elektroniko-itxurosoa etiketapean jar genezake honako hau. Deskribatu? Ezinezkoa da hori, sartu, webgunea arakatu eta deskribatzeko moduan bazaude, kontaiguzu. Zorionez, badira oraindik Interneten normaltasunetik ateratzen diren webguneak aspertzeko



Testuak: **Iker Merchán** / iker@merchan.com



Eta gaur gauen zer?

Argiak sorturiko ‘Gureagenda’ zerbitzuaren bidez zer egin erabaki dezakezu

Ziur inoiz gertatu zaizula: lagun bat aurreko egunean berak ikusitako antzerkia kontatzen hasi zaizu. Eta zuk, jakin izan bazenu, gustura ikusiko zenuen. Baina, nola egon zaitezke Euskal Herrian egunero antolatzen diren ekintza kulturalen formatuta?

Argia astekariak galdera honi erantzun elektronikoa aurkitu dio: ‘Gureagenda’. Eurek sorturiko webgunea egunez egun prestatzen diren ekintzen bozgorailua da. Baina, egunkarietako agendekin zein alde

du? Ekitaldi guztiak bertan ikus ditzakegula. Zuzenean webgunetik edota posta elektronikoa bidez mezuak helarazi diezaizkiekegu edozein item agendara gehi ditzaten. Azken finean, iragarkien tabloi erraldoi (eta demokratiko) baten modura funtzionatzen du ‘Gureagenda’k.

Agenda elektronikoa izateak baditu bere abantailak: item guztiak ez dira arakatu behar, bilaketaren bidez aurki daiteke non zer dagoen. Merezi du. ^m

Non aurkitu? www.gureagenda.com

Zer ote da? Ogg Vorbis

Musika gordetzeko formatua


Sator baten modura lurpean egon bazara azkenaldian, ziur ez duzula jakingo MP3 zer arraiio den. Bestela, nahitaez sigla horiek hamaika aldiz ikusiko zenituen. Dakizunez, MP3ri esker musika gorde eta entzun dezakezu disko gogorrean leku gutxi erabilita. Sistema hau erabiliz gero CD bakar batean 12 ordu musika sar daiteke. Baina, arazo bat du: ez da formatu askea. Horregatik, erabiltzen den bakoitzean MP3 sistemen patentedunei (institutu aleman bat) ordaindu beharko litzaioke (egia esan, enpresa handiek baino ez dute ordaintzen).

Horren aurrean, hainbat programadore bolondresen Ogg Vorbis sortu dute. Berez, MP3ren parekoa da (askoren ustez kalitate hobe eskaintzen du), baina edonork erabil dezake, modu librean, inolako traba gabe. Arazoa da gaur egun MP3 ia estandar bihurtu zaigula, eta zaila izango dela beste formatu batek horri lekua hartzea. Hala ere, honelako ekintzek balio dute monopolioen indarrei (edozein motatakoak direla) aurre egiteko.

Non ikasi gehiago Ogg Vorbis-ari buruz? www.ogg-vorbis.com

Alday Technologys

umeentzako ordenagailuak euskaraz




Martin Iturricastillo eta bere lankide bat; behean, Aitor Sortzaile ordenadorea

Berton eginda bertokoentzat lelopean, Getxoko Alday Technologys enpresa berriak, umeei zuzenduta, euskaraz dabilzan hiru ordenagailu kaleratu ditu. Beraien izenak *Aitor ikastolan*, *Aitor berritsu* eta *Aitor sortzaile* dira eta joan den Gabonetatik salgai daude supermerkatu handienetan eta liburu dendetan (60 euro inguru). Ordenagailu hauek bereziak dira, jolasak edukitzeaz gain, eskolako ariketak lantzeko aukera eskaintzen baitiete umeei. “*Hiru modelo hauek euskaraz dabilza baina gaztelaniaz eta katalanez ere ateratu ditugu eta ondo saltzen ari dira*”, azaldu zigun Martin Iturricastillok, enpresako nagusiak eta jolas hau ateratzeko ideiaren aitak. Orain dela urte eta erdi zabaldu zuen Martinek *Alday Technologys* enpresa. Datorren urtean, ordenagailu berriak merkaturatzeko asmoa darabil orain: “*Aurten sei modelo ateratu ditugu eta datorren urtean kopurua zein produkzioa bikoiztea espero dugu*”.

Harremanetarako: 607 764 058



aurkitudugu



Gizonezkoak VS emakumezkoak

Interneten irudi harrigarriak edo barregarrik topatzen baduzu, bidali UKra. Interesgarrienak aldizkarian hilaibetero argitaratuko ditugu. aldizkaria@euskalnet.net

Maiatzak 26



denon
laguntza
beharrezkoa da

Ibilaldiak
behar zaitu!

Euskararen
alde
lan egiteko
prest bazaude
eman izena!

non?

¥ Ikastolan: 94 430 54 78

¥ Ibilaldiko dendan
Zabala Kalean
arratsaldean

Karma dice aldizkari birrintzailea

El jueves edo **TMEO** aldizkariak gustuko dituenak, segurutik ondo pasatuko du “Karma dice” irakurtzen, aipatutako argitalpen hauen ildo bera jarraitzen baitu aldizkari **dibertigarri** honek



Karma-ko kideetako batzuk Bilboko euren erredakzioan. Behean, aldizkariko hiru azal

Aldizkari hau 1994 sortu zuten Leioako fakultateko gazte batzuek; “Los niños kantosos de Viena” eta “Matxaka” ikasle taldeetako kideak zirenak. Handik datorkio izena aldizkariari. Euren umorea eskatologikoa da eta erasokorra, ulergaitza batzuetan eta beti ere zirikatzailea. Futbolariak, pertsonaia ospetsuak, politikariak... edonor izan daiteke euren trufen biktima.

“Karma dice” fanzin bat bezala hasi zen. Zortzi urte geroago aldizkariak 76 orrialde ditu eta argitaratzen dituzten 8.200 ale, Estatu osoan zehar banatzen dira (nahiz eta gehienak, ehuneko laurogei, Bizkaian gertatzen diren). “Atzera beginatzen dugunean sinestezina iruditzen zaigu!”, azaldu ziguten aldizkariaren arduradunek barreak; “Argitaratu genituen lehenengo zenbakiak kutre xamarrik ziren; fotokopia grapatuak. Nekez ateratzen genituen 100 aleak eskuz banatzen ziren ikasleen artean...”. Baina pixkanaka-

pixkanaka, kazetari izan nahi zuten gazte hauek maketazio eta edizioari buruzko gauzak ikasi zituzten eta aldizkari “serio” bat argitaratzea erabaki zuten. “Gure umoreak arrakasta zuela zirudien eta urrats garrantzitsu hau ematea erabaki genuen. Hasiera

gogorra izan zen baina dagoeneko hilero ateratzea lortu dugu, 35 ale atera ditugu eta Bizkaian ezagunak gara esan dezakegu. Orain Gipuzkoan ezagun bihurtzea da gure asmoa”. Horretarako “Karma”ko arduradunek badakite garrantzitsua izango litzatekeela aldizkaria euskalduntzea (momentuz “Karma” erdara hutsean ateratzen da) eta horretan dabiltzala aitortu ziguten; “Euska-

“2000ko hauteskundeetara aurkeztu ziren Karma kideak eta 3.000 bototik gora lortu zituzten”

raz idazteko aukera aztertzen ari gara”. Baina idazteaz gain, “Karma”ko lagunek ekintza ikusgarriak ere egin dituzte: 2000.eko hauteskunde orokorretara aurkeztu ziren eta harrigarria bada ere, 3.000 boto baino gehiago lortu zituzten, CDS, Partido Humanista eta beste hainbat alderdi txiki-
ren aurretik geratuz. Azken hauteskundetan 2.000 boto lortu zituzten baina, noski, ez da hau aldizkariaren helburua. “Aldizkaria ezagutarazteko balio duen heinean, ekintza gehiago eta ezberdinak egiteko prest gaude”, esan ziguten “Karma”ko lagunek. m




Luma aldizkaria

hilabetero denborapasak, hitz jokoak... euskaraz



Luma denborapasa aldizkaria hilabetera da, baina ez edozelakoa; berezitasun handiena, euskaraz idatzita egotea. Eskarmentu handiko lagunek osatzen dute publikazio honen lan taldea. Zuzendari den Iñaki Agirresarobe eta administrazio eta erredakzioako langileek urteak eman dituzte euskal komunikabide ezberdinetarako gurutzegramak eta hitz jokoak egiten eta joan den urtean euren aldizkari propioa ateratzea erabaki zuten. *Luma* aldizkariaren lehenengo alea urtar-rilean heldu zen kioskoetara eta harrezkero hilero ateratzen da. “Letra zopak, hitz kateatuak, puzzleak, desberdintasunak, lehiaketa bat... denetarik daukagu. Aldizkari egokia da bai denbora pasatzeko zein euskara ikasteko”, azaldu zigun Prexten Gastearena administratzaileak, “Merkatuan ez dago denborapasa aldizkaririk euskaraz eta hutsune hori betetzeko eta hizkuntza bultzatzeko asmoarekin atera genuen gurea. Hasi berriak garen arren, irakurleen erantzuna ona izan da eta pozpozik gaude”, esan zigun. m

Luma kioskotan salgai: 3 euro
Harpidetzak: 943 629 564
lumazorrotz@infonegocio.com



Koldo Isusi www.bizkaie.com aldizkari elektronikoaren zuzendaria

www.bizkaie.com

Bizkaieraz idatzitako lehenengo **aldizkari digitala** jarri dute internet-en: **www.bizkaie.com**

Helbide horretan euskara eta gure herrialdeari buruzko hainbat berri aurkitu daitezke. Ideia aspalditik zetorren baina aldizkari elektroniko bat euskaraz ateratzea ez da lan erraza izan. Hala ere, apiriletik *bizkaie* sarean dago. Aldizkaria hamabostean behin sareratzeko asmoa dute eta edukiak eguneratzeko datak hila-
ren lehenengoa eta hamabosta izango dira. Aldizkaria hamalau ataletan banatuta dago, besteak beste, agenda herriz herri; barrietan (elkarrizketa zabala argazkiekin hornituta); beren beregi (erreportajeak); kultura (zinea, irakurgaiak, eta abar); jo begiz (argazki bildumak); bidaide (ibilbide turistikoak, mendiak...), interesgarri-
netariko batzuk aipatzeagatik. Honez gain, bizkaie.com-ek lotura ugari (telebis-
tak, irratiak, aldizkariak...), bilatzaile bat eta harpidedun egiteko aukerak eskaintzen ditu. Koldo Isusi zuzendariak lehenengo alean azaltzen zenez, *bizkaie.com*

aldizkari elektronikoa helburu zehatzekin jaio da; besteak beste jendeak bizkaieraz gehiago irakurtzeko aukera eskaintzea, bizkaieraz dauden aldizkariak sareratzeta edota munduko bazter guztietara heltzea. Lan polita bezain handia aldizkariko lan taldeak aurretik daukana, kontuan izanda orain arte ez zegoela bizkaiera hutsean aldizkaririk interneten. Itzela da, beraz, bete nahi duten hutsunea, baina beraiek eta esaera zahar batek dioten moduan, “Gustuko lanean aldatsik ez”. Hemendik zorte on opa diegu. m

www.bizkaie.com edo www.bizkaie.biz



Hordago txikira

Bertso eskola handiak txikien eskuetan daude eta hau ez da berba joko hutsa. Gurean, kasurako, 10 bat gaztetxo dabilta bat-batean kantatzen, oso ondo kantatzen, gainera, eta eurak izango dira, batere dudarik gabe, gure bihar-etziko ordezkariak bertsolaritza munduan. Astean behin biltzen dira ALBEren egoitzan bertso teknika lantzeko.

Testuak eta argazkiak: **ALBE**

Bederatziko txikia

Bederatzi gaztetxo dabilta etorkizun handiko talde horretan: Itxaso, Jone, Arrate, Ilargi, Maialen, Idoia, Peru, Beñat eta Joanes. Orain dela pare bat urte hasi ziren aparteko talde bezala, nahiz eta euretariko batzuk nagusien taldean ibiliak ziren. Xabi Paia izan zuten irakasle lehenengo urtean. Aurten, berriz, Fredi Paia ari da irakaste lanean, Xabi Paiaren eta Nahikari Ayoren laguntzaz. Bertsoa era askotara lantzen dute, baina beti bat-batean kantatzeari begira. Gaia eman, azken puntua pentsatu, errimak aukeratu eta kantuan hasten dira gure laguntxoak bat-batean, bertsolari profesionalen tenplean. Asteartero biltzen dira Itxasgane kulturgunean 19:00etatik 20:00etara.

Sari ugari

Talde hau edonolakoa ez dela garbiago ikus dezazuen, aipatu egingo ditugu iazko Bizkaiko Eskolarteko Txapelketan talde honetako partaideek lortutako sariak bertso idatzien atalean: Jonek 5. mailako 1. saria lortu zuen; Arratek 6. mailako 1. saria; Itxasok DBHko 1. mailako 1. saria eta Beñatek DBHko 3. mailako 2. saria. Halandaze, zorroa ondo beteta itzuli zen gure taldea Bizkai mailan urtero jokatzeko den lehiaketa horretatik. Aurtengoa laster jokatuko da eta lerrootatik zorterik onena opa diogu gure talde ordezkariari. Sariaren atalean gogora ekarriko dugu aurton Ipar Uribeko gure ordezkariak egindako azai-



Goian, Peru, Joanes eta Beñat berbetan; behean, iazko Bertsolari Gaztetxoen Eguna

na: BBK sariketako txapela gurera ekarri zuten. BBKra joan zen bertsolari taldean ikastalde honetako partaidea den Joanes Igeregi ibili zen, bai eta ikastalde honekin irakasle lanean diharduten Xabi eta Fredi Paiatarrak ere.

Bertsolari berrien begizjotzaileak

Talde honez gain, gure bertso eskolak baditu irakasle ordezkariak han-hemengo ikastetxeetan, bertso taldeetan eskolak emanez, eta apur bat nabarmentzen diren bertsolarigaiak eskolarekin harremanean jarritz. Esate baterako, Josu Landeta dabilkigu Erandioko Altzaga ikastolan lan

horretxetan, bai eta Fredi Algortako San Nikolas ikastolan ere. Alde horretatik, gogoan izan behar dugu Fredi eta Xabi Paia bertsolariak San Nikolas ikastolako bertso taldetik sortu zirela. m



«ALBEko gaztetxoen taldeak lau sari irabazi zituen iazko Bizkaiko Eskolarteko Txapelketan»



Iturria: XDZ / Argazkia: Joseba Elosegui

Solaskidearen SOSLAIA

Ondoko test erako galderei zuzen erantzunez gero, Estitxu Arozenari buruzko xehetasun batzuk jakingo dituzu.

1) Zein dira Estitxuren izen-deiturak?

- a) Estitxu Arozena Albizu
- b) Estitxu Arozena Urbeltz

2) Non munduratu zitzaigun Estitxu?

- a) Gipuzkoako Mutrikun
- b) Nafarroako Beran

3) Zenbat hilabete zituen Estitxuk Lesakaratu zenean?

- a) 7 hilabete
- b) 3 hilabete

4) Zenbat urterekin plazaratu zen lehenengoz?

- a) 16 urterekin
- b) 14 urterekin

5) Zein ikasketa egin du Estitxuk?

- a) Psikologia
- b) Euskal Filologia

6) Zein lanetan jardun zuen 1993-1995 urteetan?

- a) Aisialdiko begirale
- b) Bertsolari frustratuen psikologo

7) Zenbat Nafarroako txapel irabazi ditu?

- a) Bi Eskolartekoan eta bat ere ez nagusien mailan
- b) Bat Eskolartekoan eta bi nagusien mailan

Erantzunak: 1-a, 2-a, 3-b, 4-a, 5-a, 6-a eta 7-b



10ekotxikian Estitxu Arozena

1) Zerk bereizten ditu bertsotan Arozenatar aita-alabak? Belaunaldi batek, horrek suposatzen duen guztiarekin.

2) Non kokatzen duzu zeure burua gaur egungo bertsolaritzaren esparruan?

Bi kokapen emanen nizkioke nere buruari. Bata Nafarroa mailako bertsolariarena, eta bertzea transmisioarekin kezkatutik dagoen bertsozalearena.

3) Bertsotan hasi zinenean, zein bertsolari izan zenuen eredu? Eta gaur egun?

Haurtzaroan edo 10-11 urterekin Jon Sarasua. Ni hasi nintzenean Igor eta Unai. Azken Euskal Herriko Txapelketa Nagusian Maialenek txundituninduen, baina Ega a aipatu gabe uztea ere...

4) Txapelketazalea al zara?

Nafarroako 11 txapelketek aurkakoa adierazten badute ere, ez naiz lehiazalea.

5) Bertsoez gain, zein zaletasun gehiago ditu Estitxuk?

Heziketak eta, batez ere, hezkidetzak pizten didate interesa. Baina zaletasun moduan, herrian lasai egotea, mendian buelta bat ematea, pilota...

6) Aipatu zure bertso ibilbidean izan duzun unerik estuena.

Hasi berrian Euskal Herriko Eskolarteko finalean neretzat izan zirenekin bakarkakoan blokeatu nintzenean. Azken Euskal Herriko Txapelketa Nagusian ere gaizki pasa dut.

7) Aipatu zure bertso ibilbidean izan duzun unerik atseginena.

Nafarroako lehen txapela jantzi nuenean eta ondorengo urteetan, batez ere harreman mailan.

8) Definitu hiru adjektiboren bitartez gaur egungo nafar bertsozalea.

Gaztea (zentzu zabalean), prestua eta abarra.

9) Konforme geratu al zara aurtengo Nafarroako Txapelketan egin duzun lanarekin?

Emaitzarik onenak lortu ditudan finaletan aurtengoa baino sai txarragoekin izan da. Beraz, pozik, nahiz eta postuak besitxura bat eman.

10)Algortako bertso eskolan 10 bat gaztetxo ari dira bertsotan bat-batean, gehienak neskak. Zer gomendatuko zenieke, bertsogintzan aurrera egitekotan?

Bertsoak gustura entzun eta kantatzea orokorrean. Eta neskei esfortzu bat gehiago egin behar dutela oraindik ere mutilak eta neskak desberdin hezi, bizi eta sentitzen dugun gizarte honetan.



3 mikroak bertso egarri. 8 aulkiak ipurdi gose. 8 ur botilak eztarri freskagarri. Txapela zain.



Ondo merezita jaso zuen Nerea Elustondok I. ABRA SARIAren txapela.



Irazu eta Eizagarre bikiak adi, luxuzko entzuleak, dudarik gabe.



ALBEko zuzendari Trino Azkoitiak txapeldunari kantatu zion, txapela non irabazi zuen munduan zabaltzeko esanez.



Aitzol de Kastrok bikain bete zuen gai emaila papera.



Udalaren Aixerrotek eta ALBEren Ahobiek polito hornitu zituzten parte hartzaileen esku dantzariak.



I. ABRA SARIA dagoeneko pasatu da asmoa izatetik historia izatera. Argazki hau gertakariaren oroitarri egokia izan daiteke.

BEGI-BELARRI

I. Abra sariak eman zuena

Apirilaren 20an jokatu zen Areetako Musika Eskolan I. ABRA SARIA bat-bateko bertso sariketa. Euskal Herri mailako sariketa berri honek, beraz, emana du lehenengo urratsa. Bertan lehiatu ziren zortzi bertsolariek maila ona erakutsi zuten. Nerea Elustondok bururatu zuen ABRA SARIko lehenengo txapela, baita dotore bururatu ere. Mantxik bigarren egin zuen eta Fredik hirugarren. Gogora ditzagun saioko zenbait une argazkien bidez. Argazkiak: **Andoni Crespo - ALBE**



6 epaileak eta 2 idazkariak buru-belarri aritu ziren artea zenbaki bihurtze lanean



Mantxi izan zen Nerea gehien estutu zuena txapela lortzeko borrokan. Silveira bere estilo karismatikoaren hainbat erakusgarri utzi zizkigun.

HIRUSTA



Bertsojartzailea: **Itxaso Paia**
Gala: **Bertsolarien etorkizuna**
Doinua: **7 puntukoa**

1 Bertso eskolara etortzen denez geroz ta jende gehiago, bertsolaritza gora egin gabe ezin da egon luzaro; etorkizuna ona izango da, horretaz seguru nago: bertsolaritan oparo, bertsolaritza gorago; (bir) Uribe Kostan ikus daiteke geroz eta argiago etorkizunik ez dagoela iraganik ez badago. (bir)

2 Saskibaloia, atletismoa, frontenis ta sokatira; bertsotan ere egin daiteke hainbat jira eta bira. Halere ez naiz lar luzatuko, baina ezin erretira, joan gaitezen harira, entzun nazazue, tira! (bir) Sarri gehiago maitatu arren kirolaren ikusmira, bertsoak ere kirola bezain dibertigarriak dira. (bir)

3 Bertsolariok astero joaten gara bertso eskolara, horrela ere egin daiteke hainbat barre ta algara. Agian noizbait kantako dugu profesionalen erara, errima, doinu, silaba, kontrolatuz beharbada; (bir) Beraz etorri nahi baduzue lotsa bazterrean laga, Euskal Herriko gazte guztiok etorkizuna baikara. (bir)

Manuel Ugarte

Oingo denporan, soñu edota pandero yoten ikesi gure deuren gastek eskola batera yoten dire. Gaur dakargun gisona pandero yolea ixan da ainbet urtean, baia berak bakarrik ikesi eun yoten. Plentzin yaio eta Berangon bixi dan Manuel Ugarteri burus ari gara. Beragas eon gara berbetan ta gausa asko konta dosku trikitixaren ingerun.

Testua: Urtzi Iglesias Erretratua: Asier Mentxaka



—Plentziko sara, esta Manu?

—Ni Plentzin yaiota bai, bueno Plentzin an Abanikun goien, mendiganen; etzeperi esa-teukan Goikomendi. Ni an yaio ta asi nas, eskondu arten. Gero etor nintzen ona (Berangora); andrea orkoa serekoa, kultur etzen yaio ta asi; nire seme-alabak pe or yaio ta asi siren kultur etze daun lekun oiñ.

Yaio nintzen ni milla da bederatzireunde ogetabederatzin, martin ogetasortzin; gerre emen asi baiño saspi urte lenau. Nik emen gerrea salta eunena saspi urte pasaisu neuke-san. Ta antxe, baserrin, saspi nebarreba ta ni sarrena, etzen bueltan galtzen siranak garro-ta dustik nire lepon jausten siren, beste batzun erruek nik pagaten nus (barreak). Ta alantxe, ni nintzen sarrena; artexixe, gorta bat be bai, ta beti lanen, nire denporan beti ixan da lanen, gero ogetasaspi urtegas eskon-du nintzen ona.

—Pandero yoten dosu seuk, esta?

—Esantsuten modun len, artexi, ta illun-tzen yoten nintzen txabolara, bueno arrastin lelau batu; ta ara yoten nintzen amasei litro-ko balde bateas, ardik yasten. Tta nik asko entzunte Arrola (difuntu), Andrakako rementari, Arrizabalaga Tomas... orrek yoten trikitirixa; ta pandereteruk pere bai, Plentziko Klemente (ona!)... Ta, esantzuten modun yoten nintzen goxillunetan ardik yasten baldegas ta airi entzunte ba, ta balden epurdies martxa yoten an lotute, gero jote ostabere ta olantxe. Ta amasei urte neukese-la amamak (difuntek) ekarri eusten pandero bat, ta Abanikun eiten sen Karmen egune, ixeten sen ango yaie ba, ta eoten siren soñu-larik eta nik pere an, arrimata. Alan ikesi neun pandero yoten.

Nik olantxe ikesi neun pandero yoten, ardik yasten yoten nintzenen goxillunetan,

balden eperdigas, neure konture. Kantaten bere... ba beste batzuri entzunte.

—Kanta bere eiten sendun?

—Pandereteru kanta iteu, osten... es du konkurso baterako balio pandereteruk kanta itten es badeu, in bear da pandero yo ta kanta in bear da, euskera edo erdera. Nik jotak, osten, askos dakias geiau erderas eus-keras baiño, Francon denporan esin saten san kanta euskeras, erderas kanta bear. Niri pasasten kasu bet Burgosko katedralen aurren. Ondiño es nintzen onegas soñularias ibili, baia bueno yoten nintzen panderogas. Yon gintzen ara katedralera, an sartu te

as ta soñua. Ta olan ibilten gintzen. Ya urte-txuk dire il san kañabere yoten euna ba. Oiñ ya es, se soñularik esin deu. Nik ondiño bai, pandero yoteko es dekot pegarik esta. Kañabere be yoten dot apur bet.

—Leku askotan eon sara pandero yoten?

—Asko; or ibilten gintzen, eon gara Frantzin bere iru edo lau bider. Ta leku asko-tan orti, Nabarra, Burgos, Rioja alden... Emen bertan bere bai, makaillu egunen ta Santo Domingo yaietan bere egunen baten edo biña ibilten nintzen.

Urten urten yoten gintzen Iurretara, oktubren lelako domekan, urtero itten sen

“Nik olantze ikesi neun pandero yoten, ardik yasten yoten nintzenen goxillunetan, balden eperdigas, neure konture”

padrenuestro bat erresau ta urten gendun kanpora, irurogei lagun edo gintzen ba, autobuse bete, ta: “kaguen dies, in bearko da...” ordun soñu parik, pandero bi; ieren korro ta: “ala Manu ta Ramon yo pandero, ta kanta Manu e? Se yantzan in bear duu”. Ta bueno, asi gintzen pandero yoten ta eus-keras kantetan, ta etor san munisipal bat ta esaustan: “haga el favor de cantar en cristia-no” euskera kantaten eon nintzelako. Asi gintzen ostabere, danak jote yantzan ta or sartzen dire erdire bost edo sei mutil amasei urte ingerukok laskittuten. Ta ordun kanta neutzon erdera (jajaja) an enredaten asi sire-nen: “Ahora sí que canto yo con gusto y con alegría, ahora sí que canto yo con gusto y con alegría, porque ha salido a bailar la mier-da y la porquería”, ostabere munisipalak porregas: “venga, fuera de aquí!” ta atara gendusen danok orti kanpora, autobusera.

—Nogas yoten sendun?

—An goien bixi da, larogei urte dekos, Pablo Apraiz, orrek yotensun soñu txikerra. Etor san beste bat ta agas, berak iñeko ka-txarroas, kañabere. A kañabere, ni pandero-

pareja bateri omenaldia, ta juntaten gintzen an igual berrogetamar soñu, beste... geiau igual panderuk, ta alboke; dultzainerurik es apenas. An yo jota bat, porrusalda bat, kales kale ta aurrera. Gernikera bere sarri. Oiñ ya akaba da, soñularik esin deu yo ta neu be enabil lengo modun.

—Dantzan bere badakisu?

—Yantzan bai. Len itten neun apur bat baia oiñ es. Yantzan ikesi neuken nik, jote yantza, neure gerixegas. Or arrastegi parten eguski bajaten danean, para, ta personen gerixe itten deu. Olantxe! Norperan gerixegas... Orrek soñularik pere, ori es da iñora yoan ikasteko soñu yoten, ta ni bes.

—Oin iten dan trikitixa ta len iten sana igualak dire?

—Antzi pes; onek trikitixak konpletamente dire... es dire lengolauk. Ondo eoten dire, esta? Baia, nik lengo gure dot nitzako, len-goas naules ibilte, jotak eta onek dustik. Onek ondo derrigor yo bear dere, se onek eskolakok dire; guk es dekogu eskolarik. Bai pandereteruk eta bai soñulariek, orrek danak eskolan ikesi dere; bertzolarik modun. m

10 Gurberbakeren BERBA JATOR BATZUK? (III)

Testua: Xabi Bilbao

Hemen doatzuez modu edo era esateko erabiltzen diren berba (aditzondo) batzuk.

adi (egon): arreta jarri edo begira egon.
—*Aritxok! bata bésteri adi-adi páraten² direz, tópeka iñ baño lélau (lehenago).*
—*Adi ezpázauz eztozu ulértuko ezer bere.*

ágirin: agerian.
—*Imíxu³ ber dález (behar dan lez) hori frake! ágirin darozu tripe ta!*
—*Zulo iñ daude kamiño konpónduteko eta ágirin itxi daudez tuberi dúztik.*

begíre (egon): itxaroten egon, zerbaiten esperoan egon.
—*Han on naz (egon naiz) begíre ordubeten, baia ezta iñor agertu.*
—*Zóaze ointxe (oraintxe), begíre dekozuez duztik eta, afálduten hásteko.*

dándarrez: zintzilik eta arrastaka.
—*Hor dator Cantinflas, frákak dándarrez.*
—*Kóntuz, dándarrez darozuz firu⁴ batzuk.*

derrigor: nahi ta nahi ez.
—*Telebisíño ikusten bádozu mille iñusentekeri traga éreiten⁵ dotzue derrigor.*


gustoso: gustora.
—*Txistulárin bánderi nahi⁶ rockero bátzuri éntzuten, gustoso gauz gu beti músike egon ezkéron.*
—*Gustoso-gustoso topa duz (doguz) hantxe, óñek sutóndon párata.*

kárra, karradéran: korrikan, arrapaladan.
—*Zezénan áurren karra íten urten ber du (behar dugu) Sanfermiñetan.*
—*Dirun usíñe barrínta⁷ ta karradéran yon direz negóziok íten.*

BERBA BARRIK
1. arítxo: ahari, aharitxo.
2. pára: jarri, ipini.
3. imíxu: imini (ipini) ezazu.
4. firu: hari (arropakoa).
5. érein: eragin, arazi.
6. nahi: nahiz, zein.
7. barrínta: nabaritu.

Euskara ikasi dute

CARLOS VILLANUEVA



Carlosek 42 urte ditu, Bilbon jaio bazen ere, bederatzi urte zituenetik Getxon bizi da.

- Noiz hasi zinen euskara ikasten?
- 1979an San Nikolas Ikastolak antolatu zuen “Euskalduntze” izeneko ikastaro batean.
- Eta bukatu?
- 1996an, EGA atera nuenean. Baina ez pentsa hogei urte euskara ikasten ibili nintzenik; horietatik asko ikasi barik pasatu nituen.
- Non ikasi zenuen euskara?
- Lehen esan dizudan bezala, San Nikolas ikastolan hasi nintzen, gero Algortako AEKn, Algortako Udal Euskaltegian...
- Zergatik han?
- AEK betidanik gustatu izan zait irakasteko sistemagatik eta Udal Euskaltegian ordutegiagatik; komeni zitzaidalako.
- Zerk bultzatuta ikasi zenuen euskara?
- Kontzientziazio kontua izan zen.
- Zer da gehien kostatu zitzazuna?
- Hitz egitea; hitz egiteko beldurra galtzea. Nire ustez, euskara, hizkuntza bezala, ez da batere zaila; egitura aldetik behintzat, guztiz logikoa da. Ikasitakoa kaleratzea izan zen gehien kostatu zitzaidana.
- Zein da garai hartako zure oroipenik onena?
- Oena, inolako zalantza barik, egin nituen eta oraindik ditudan lagunak. m



Guechon ala Getxon, non dago gizon hau?

Uribe Kostako herriak eta gentilizioak, zelan esan behar dira?

Gure eskualdeko herri eta auzoetako izenekin eta gentilizioekin oraindik egon litezkeen zalantzak argitu nahian, UK-k Euskaltzaindira jo du, euskal hizkuntzaz ardu-

ratzen den erakunde ofizialak normalizatutako gure eskualdeko izen ofizialen bila. Hurrengo zerrendak eztabaida batekin baino gehiagorekin bukatzeko balio izango du. m

Euskal era arautua	Izen ofiziala gaur egun	XIX. mendeko izen ofiziala	Gentilizioa
Sopela	Sopelana	Sopela	sopeloztar
Urduliz	Urduliz	Urduliz	urduliztar
Plentzia	Plentzia	Plenzia	plentziar
Lemoiz	Lemoiz	Lemóniz	lemoiztar
Leioa	Leioa	Lejona	leioaztar
Lamiako	Lamiako	Lamiaco	
Gorliz	Gorliz	Gorliz	gorliztar
Getxo	Getxo	Guecho	getxoztar
Erandio	Erandio	Erandio	erandioztar
Berango	Berango	Berango	berangoztar

Iturria: Euskaltzaindia

Egizu maiatzeko euskarazko eskaintza

Ramon Agirre, musika-antzerkia: maiatzaren 16an, arratsaldeko Satistegi tabernan (Algorta–Casino alboan) 20:00etan. Ramón Agirrek “Ondo esan beharko”, musika, umorea eta antzerki dituen saioa eskainiko digu. Dena nahasten du: bluesa, koplazaharrak, pasadizo sasibiografikoak, rokanrola, katxondeoa, bluesa berriz ere... Eta entsalada honen osagarriarik nabarmenena, UMOREA. Sarrera dohainik

Mongolia, Munduaren berri (bidai kontaketak): Maiatzaren 21ean, arratsaldeko 20:00etan, Erromoko Kultur Etxean. Jose Ramón Agirrek, “Marron”, Mongoliako ikuskizuna eskainiko digu. Sarrera dohainik.

Gorka Sarriegi (poprock) kontzertua: Maiatzaren 23an, arratsaldeko 20:00etan, The piper’s irish pub’ean (Algorta- Casino alboan). Bere izena ezezaguna irudituen arren, Sorotan Bele talde ospetsuko ahots nagusi, gitarra jole eta konpositoreez hitz egiten ari garela jakitea komenigarria litzateke. Gorkaren bakarkako lan honetarako euskal zein nazioarteko musika esparruan errekonizimendu zabala duen esperientzi handiko musikariekin inguratu da. Sarrera dohainik. m

Argibideak: 94 491 43 57 edo 605 739 916 / egizu@hotmail.com

Euskara Zerbitzuak hizkuntza normalizatzeko tresnak

Gaur egun gaxa da Euskara Zerbitzurik ez daukan udalik aurkitzea, gure eskualdeko herri guztietan daude eta. Guztiek helburu bera dute: euskara normalizatzeko planak egin, administrazioan zein herri mailan. Horretarako eskaintza zabala dute, besteak beste: doako itzulpenak, ume-

GETXO Udaletxean & 94 489 02 18 Ordutegia: 8:00etatik 14:00ak arte.	LEIOA Udaletxean & 94 400 80 44 Ordutegia: 8:00etatik 14:00ak arte.
ERANDIO Udaletxean & 94 489 01 28 Ordutegia: 8:00etatik 15:00ak arte.	BERANGO Udaletxean & 94 668 00 08 Ordutegia: 8:00etatik 13:00ak arte.
	URIBE KOSTAKO MANKOMUNITATEA Gatzarriñe kalea, 2 & 94 676 26 74 Ordutegia: 8:00etatik 15:00ak arte.

[baicomment]



EGIZU egitasmoak euskararen alde, Udala, Euskara Elkarte eta herriko euskaltegiak elkartu ditu aurtien Getxon. Euskarazko ekitaldi kultural mordoak eskaini dizkigute. Eskerrik asko!
Harremanetarako: 605 739 916 / egizu@hotmail.com

[nocomment]



Kirol Portua aspaldian zabaldu zutenetik kartel honek horrela dirau, sarritan jendeak eskuz zuzendu arren.

EGONALDIAK FAMILIA EUSKALDUNETAN 2002

Plangintza honen xedea da euskara ikasi edo sakondu nahi dutenei familia euskaldun batean udan hilaibete edo bi pasatzeko aukera eskaintzea, bertan biziz, bertako ingurunea, hizkuntza eta, oro har, kultura ezagutu eta praktikatzeko aukera izateko.

Kontuan izan behar da ikasleek oso aukera gutxi izaten dutela urtean zehar eskolaz kanpo euskaraz ari-tzeko, eta hauentzat oso egokia dela, udako oporrak aprobetxatuz, familia euskaldun batean integratu eta euskaraz aritzeko aukera izatea. Aurtien 54 familiak hartu dute parte eta 97 egonaldi eskaintzen dituzte Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Nafarroa Beherean. Parte hartu nahi duen ikasleak honako baldintza hauek bete beharko ditu: 18tik 45 urtera bitarte-ko adina izatea, eta HABEk finkaturiko euskalduntze programaziorako 8. urratsa edo baliokidea gauditua izatea, gutxienez. Parte hartzen duten ikasleek 210,35 euro ordaindu beharko dute hilaibeteko egonaldiagatik, eta 420,71 euro bi hilaibeteko egonaldiagatik. Izena emateko epea: maiatzaren 20a.



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Babak

garaikoak eta saltsan

Laster amaituko da babak jateko garaia, izan ere, gure eskualdean San Isidro egunean biltzen dira azkenak. Hortaz, erne ibili eta aprobeitza ezazu aurten plater gozo eta merke hau prestatzeko aukera!

Hasteko, ipini sutan tipula gorria, berakatza, porru bat ondo txikitua, txorizo piperra eta pernil zati batzuk. Dena ondo egin da dagoenean okela salda apur bat gehitu eta gero, txinotik pasatu dena. Lehenengo pernil zatiak baztertu. Bestetik, baba freskoak ur berotan egosi behar dira. Hamar minutu nahikoa izaten da. Platera amaitzeko guztia nahastu eta kitto. Laguntzeko, esaterako, Nafarroako ardo beltza. On egin!

osagaiak

tipula gorria • berakatza • txorizo piperra • berakatza • pernila • okela
salda apur bat • babak • oliba olio • gatz



itsaso arana / jolastoki-koa

Terroir

ala sorterri (terruño)

Berba hauek sarritan erabiltzen dira ardoaren munduan. Ze jatorri duten eta zer adierazi nahi duten argitzen saiatuko gara. *Terroir* hitz frantsesa da. Lurra eta lur horri dagokion mikroklima batzen ditu kontzeptu honek. Edo beste modu batera esanda: helburu praktikoa batekin, beste batengandik bereiztu daitekeen unitate eko-geodafologikorik txikiena adierazi nahi du. Berba hau *sorterri* (erdaraz *terruño* esaten dena) bezala itzuli liteke; baina, hala ere, ez ditu frantsesez dituen adiera guztiak batzen.

Mikroklimaren alde hau batez ere frantsesek esploratu dute, izan ere, han alboko chateaux-ak mikroklima desberdinak dituzte eta horregatik ardoek ere ezaugarri desberdinak izaten dituzte. Horrela, nahiz eta eskualdeko berekoak izan, batzuek beste batzuek baino ospe handiagoa izaten dute, eta botilak garestiago saldu ahal izaten dira.

Ardoa kultura den lekuetan ardoa eta luraren batuketak ardo bat beste batzuetatik bereizten du, nahiz eta eskualde beretik eta mahats mota berbera erabilia izan ardo horiek egiteko. Mediterraneo inguruko herrialdeetako marketan gertatzen da hori: Burdeos, Borgoa, Oporto, Erroxa, Mosela... Sorterriko ardo hauek Burdeos *crus* deitzen dira; Borgoa *clos*; Espainian, *vinos de pago* o *de finca*...



Lagun Zaharra txokoa

25. urteurrenaren atarian



Lagun Zaharra txokoko kideetako batzuk

Aurreko aleetan egin dugun bezala, honetan ere Uribe Kostako txokoak ezagutzeko asmoarekin jarraituz, “Lagun zaharra” izeneko txokoan jo dugu atea, Algortako lagunarte ezagun honek 1979an sortutako elkarte hau ezagutzeko. Hauxe duzue euren fitxa:

Izena: “Lagun zaharra”. **Helbidea:** Kalleja kalea z/g, Algorta. 1979an eratu. **Presidentea:** Imanol Torrontegi. **Bazkide kopurua:** 30 lagun hasi ziren 79an eta 30ek jarraitzen dute. Hildakoen lekuak betiko bazkideen semeek bete dituzte eta horrela hirugarren belaunaldira arte heldu dira. **Zaharrenak:** Juan Deusto, Iñaki Olabarria eta Javier Ariztegi dira sortzaileetako batzuk. **Emakumezkoak:** Gaur egun sar daitezke nahiz eta ezin diren bazkideak izan.

Ibilaldia ospatzeko

munduko marmitakorik handiena

Ibilaldiaren ekitaldien barruan Bizarra Lepoan euskara elkarteak antolatuta eta “Geugaz jan” sukaldarien elkartearen laguntzarekin, munduko marmitakorik handiena egingo da. Prestakuntzak goizean hasiko dira (egin behar diren lanen artean 300 kilo patata zuritu behar dira) Algortako Portu Zaharrean eta eguerdira arte luzatuko dira. Sukaldariek lapiko erraldoi bi erabiliko dituzte. Lapiko erraldoi hauek Murtziatik ekarri behar izan dira. Bakoitzak 2 metro eta 10 zentimetroko diametroa eta 60 zentimetroko sakonera ditu. Burdinazkoak 1.500 kiloko pisua du eta besteak, aluminiozkoak, 500 kilo inguru. Antolatzaileek 2.000 lagunentzako bazkaria prestatzea espero dute. Hori lortzeko osagai kopuru itzela erabiliko dute: 300 kilo patata, 150 kilo hegazu, 60 kilo kipula, 15 kilo gatz, 30 litro olio, 15 kilo piper berde eta 300 piper gorri.

Barrukoa Taberna



Telletxe 5

ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01
48990 NEGURI 87



I aki

Bitxitegia


OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte T: 4302345

Algorta

VILLABOTAS

JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA



Janedan

urdaitegi

Adituak garen berriketa
delicatesse produktuetan

Bidebieta, 4 behe
Tel. 94 676 58 79
SOPELANA

Alangobarri 10
Tel. 94 491 58 37
ALGORTA

“Arroz on bat prestatzea uste baino zailagoa da”



Azkorri Erreategia

geldialdia hondartzarako bidean

Iazko urtarilaren 10ean zabaldu zituen ateak Azkorri Erreategiak. Getxoko Gorronatxe hondartza-rako errepidearen bazterrean koka-tuta dago jatetxe txiki baina abegi-kor hau, lehen Mati izenez ezaguna zen toki berean. Momentuz beheko pisua baino ez dute ireki (25 lagun baino ez dira sartzen jantotiko egu-rrezko mahaietan) baina ekainera-ko goikoa zabaltzea espero dute. Sukaldaria Sergio Fernández da eta bere eskaintza zabala benetan: ehiza (oreina, basurde errea...), arraina (lupina eta Bizkaiko Golkoko

arrain freskoa), etxeko postre bere-ziak eta euskal sukaldaritza berria dira Azkorri Erretegiko espezialita-teak. Karta zabala daukate eta horrez gain menu bereziak ere eskaintzen dituzte 15 eurotan. Hondartzarako bidean gose bada bat, geldialdia egiteko leku apropo-sa. Gainera, euskara ere badakite batzuk. m

AZKORRI ERREATEGIA / Zientotxe z/g, Getxo
Menu berezia: 15 euro
Karta: 30 euro (aprox.)
Astelehenetan itxita
Erreserbak: 94 460 48 12



Asier Sanz barrako arduraduna eta Sergio Fernández sukaldaria

barrak



Begoña, Denver-eko langilea

Denver

Sopelanako klasiko bat

Denboraren poderioz, Sopelanako “Den-ver” kafetegia biltoki klasiko bihurtu da herrian. 1985ean ireki zituen ateak eta ezaguna egin zen laster, partidua dagoen egunetan Athletic-en bandera atean jar-tzean hasi zirelako (Uribe Kosta osoan ohitura hau modan jarri zuen lehenengo taberna izan zen) eta eskaintzen zituzten pintxo landu eta bereziei esker. Gaur egun jabeak ez dira lehengoak, baina ikurrina eta pintxoak bai. Bilboko Pedro Ruiz, gaur egungo jabea eta sukaldeko arduradunak, 25 mokautxo mota ezberdin prestatzen ditu egunero. “Aurreko jabeek eskaintzen

zituzten pintxo mota guztiak mantentzeaz gain, delikatessen gehiago ere prestatzen ditugu. Kafetegia goizeko seieta zabal-tzen dugu eta pintxoak ordu horretan prest egon daitezen, lau eta erdietan hasten gara lanean”, azaldu zigun Pedrok. “Den-ver”eko barra luzean hainbat gutizia aurki-tu daitezke, baina arrakastatsuenak, pintxo izarra, txorizo tortilla da. “Gehien saltzen dena hori da”.

DENVER KAFETEGIA
Sabino Arana 4 (Sopelana)
Telefonoa: 94 676 31 11

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?
herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!
Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Erosketa etxera eroaten dogu!!

Ugari
supermerkatua
ORDUTEGIA
Lan egun eta zapatuetan: 9:00-14:00 / 17:30-21:00
Domeka eta jai egunetan: 9:00-14:30
Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

udondo
taberna
zatoz!
Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

uk

zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!!!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo
aldizkaria@euskalnet.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

irabazi bi lagunentzako bazkari bat GARDOKI Jatetxean

Nor da?

- Gipuzkoarra, Asteasukoa, 51 urte ditu.
- Idazle ezaguna da.
- Euskaraz idazten du.
- Bere benetako izena Joseba da.

> Aurrekoaren erantzuna: Montxo Armendariz

> Irabazlea: **Aloña Olanga* (Algorta)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
aldizkaria@euskalnet.net / faxa: 94 491 58 31

Gardoki
Jatetxea

Mendieta kalea 47
Sopela
Telf. erreserbak: 94 676 07 61
astelehenetan itxita

68 UK

UK 69

Errotalde

ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA?MARI?GETXO

ITXASGANE

prentsa ¥ aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA

Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21

ALGORTA • GETXO

BATIZKRISTALDEGIA

¥ BIDRIERAK

¥ GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN

¥ IPILUERRALDOIAK

¥ INSTALAZIO OROKORRAK

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)

T:94 430 69 42 /ALGORTA

CALENDOS

RIKI

UMEAK - GAZTEAK

Kale Nagusia 30 - T: 4645543



TXIBERRI

edantokia

frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15

[horoskopoa]

URA

(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Gauzak ez badira behar bezala aterata, ez zaitez larritu. Horrelako egoeretan zure kabuz arazoak konpontzen ikasi behar duzu, zeu zeure erabakien erantzule izanik. Jarrera aldaketa honek etekin paregabeak eskuratzeko parada emango dizu.

AITZURRA

(Martxoak 21 apirilak 19)
Gaizki ulertuengatik eztabaida bat baino gehiago izango duzu, batez ere zure adierazteko era askotan behar bezala ulertzen ez delako. Zure ideiak ordenatu eta hitz egin baino lehen. Osasuna: zaindu zaitez!

GARIA

(Ekainak 19 uztailak 18)
Espero ez zenituen gertaerak. Dena aldez aurretik kontrolatua izatea gustatzen zaizu eta bat-batekotasun honek guzti nahastuta utziko zaitu. Lasaitasunez hartu egoera berria. Zure ahalaginak baloratuak izango dira.

META

(Irailak 17 urriak 16)
Bizitzan zuzena eta zeure arduren erantzule izatea ez da lan edota ikasketetara mugatu behar. Bizitza askoz gehiago ere bada. Lehenik eta behin zeure burua dago, zu ondo ez bazaude besteei ezingo diezu lagundu.

OTSOA

(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Ideia berritzaile asko izango dituzu, baina buruan dituzun proiektu horiek guztiak gauzatu beharko dituzu, praktikara eraman. Baliteke, orduan, zeure buruari itxura aldaketak egitea baina kontuz ibili, eta ez galdu zeure nortasuna.

HOSTOA

(Apirilak 20 maiatzak 19)
Zure bizitzako momentu eta egoera onenean ez zaudela guztiok dakigu. Zuk dena beltz ikusten jarraitzen duzunez, zure ondoan daudenekin fidatu. Ohitu zaitez zure buruari epe luzeko helburuak ezartzen.

LASTOA

(Uztailak 19 abuztuak 17)
Ezin duzu egun osoa iraganetik bizi, beti txarto eginak gogoratuz. Gauzak ezin dira aldatu, baina zeure jarrera bai. Orainaldia da balio duen gauza bakarra, badakizu: carpe diem! Bizitza behin bakarrik bizi dugu eta!

HAZIA

(Urriak 17 azaroak 15)
Ez ahaztu maite dituzun pertsonak. Harremanak hilkorrak dira, egunero zaindu beharko zenituzke. Agian opariren batek edo sorpresa batek elkarren arteko maitasuna berpiztu eta sendotuko luke. Zeozer egin!

ADARRA

(Otsailak 19 martxoak 20)
Zuk baino esperientzia gutxiago dutenei ematen dizkiezun aholkuak oso baliagarriak dira. Badaude adiskide batzuk zure aholkuak onartzeko orduan, aurretik tronpatu eta gero arrazoa zenuela aitortzen dutenak. Denborak beti dakar arrazoa.

EGUZKIA

(Maiatzak 20 ekainak 18)
Azken bolada honetan oso baikor eta energia handiarekin zabiltzaneez, oso baliagarria izan daiteke zure inguruan dagoen pertsona horri laguntzea, benetan behar zaitu eta. Lan arloan edozein oztopo gaindituko duzu.

IRATZEA

(Abuztuak 18 irailak 16)
Etterik urrun egon nahi duzu, askatasun egarritz zaudelako. Ondo etorriko zaizu bidaia txo bat egitea, baina zure familiarekin harremanak hautsi gabe. Gogoan izan nondik zatozen eta nortzuk egon diren beti zure ondoan.

NEGUA

(Azaroak 16 abenduak 20)
Bizitzak hamaika buelta eman dizkizu: adiskide berriak, bikotea aldatu, lanbidea ere... Denbora laburrean zure bizitza hankaz gora jarri da. Agian, aldaketa guztiak lasaitasunez aztertu beharko zenituzke.

Lur planeta. Lurreratzaren atala

Kartzelan egon izanak sentimendu bi eragiti dizkit: ba kardade sakona eta baita ere kateko doku mentaletan tximinoek egiten dutena. Nire aitak ba kardadea bakarrik behar dela aholkatzen zidan, baina ez diot kasurik egingo eta nire izarrarteko abentura hasi nuen leku berera itzultzea erabaki dut, hau da, botelloia egiten ari ziren gazteengana joango naiz. Nire espaziontzia konpontzen lagunduko didan norbait aurkitu behar dut laster, eta bide



Hurbiltzen naizen neurrian lehen bizipozez eta gazte jendeaz betetako ingurua, hilik dago orain. Bitakora kodernoak: gero eta urrunago ikusten dut nire behar enpiriko-sexualak asetzeko unea, eta gogora datorkit gure espeziekoak hermafroditak garela eta jakina, autoernaldu gaitezke... Baina nire alde maskulinoa eiakuladore azkarra da eta nahiz eta klimaxa luzatzek futbol jokalariaengan pentsatzen dudana, sekula ez naiz

Arraroa da baina pentsamendu hauek egarria ematen didate. Nire ibilera galduak L.A. izenez ezagutzen den leku batera eraman nau, Los Angeles izan barik, Las Arenas dela ematen du. Baso bete ardo eskatzera saiatu naiz taberna batean eta hara! Hantxe dago bera barraren bukaera. Bitakora koadernoak: nire maitasun teknika sutilak demostratzeko unea iritsi da. Nire hantartea adreilu txiki batekin bete dut eta nire galtzerdiak be



Adreiluaren pisuak nire irribarre gaiztoa ez natural bihurtu du eta ezin diot sudurrarekin txerri soinuak egiteari utzi. Enpatia adierazteko aurpegian txistua bota dit. Gorte-egite honi bukaera ederra emateko, makila batekin betaurrekoak aurpegian hondoratu dizkiot eta segituan ileetatik tiraka kalen behera arra eraman dut. Ilargiaren argiak gau-jai perfektu honi ginda jarri dio. Bitakora koadernoak:

jarraituko du...



Popkross 1975 auto lasterketa zorua

Citroën auto markak 1975ean behin baino egin ez den popkross lasterketa antolatu zuen Larrabasterran. Europa osoko zaletuak etorri ziren lasterketa berezi hartan parte hartzera. Dos Caballos, Mehari eta Dyane modeloetako autoek baino ezin zuten korritu lasterketan, hau da, suspentsio zoroko autoak, nekez irauli zitezkeenak. Induskailu batek zirkuitu oso bihurria prestatu zuen aurreko egunetan. Atrakziorik handiena autoak irauli egitea zen, baina ez zen horrelakorik gertatu. m Argazkiak: **Kepa Urkiza**



Bittor Egurrela

Algortako Ikastola 1965/6

Hona hemen Algortako Ikastolako umek San Ageda kantatzen M. Antonia Andracka andereñoarekin; plentziarra izatez, gaur egun Bilbon bizi da. Argazkia Basagiti etorbidean, gaur egun Susrai eta Salem tabernen artean dagoen atarian hartua dago. Ikastolak gaur egungo Arenezpiko egoitza izan baino lehen makina bat lekutan ikasi behar izan zuten garai harrakotako umek: Urretxua familiaren txalera, Landeta akademia, Bidebarri, Villamonten zegoen txalera eta hainbat familiaren exebizitzetan. Algortako Ikastola 1963an jaio zen herritako bederatzi familiaren ahaleginei esker: Agirre Zarate, Aristegi Anduiza, Azkargorta Arexabal, Garamendi Garate, Garamendi Uribe, Garate Urretxua, Iturriaga Zabala eta Zeberio Garate. Zortzi umek baino ez zituzten eskolak hartu lehenengo ikasturte hartan. Eskolak gaur egun Bolue kaleko Garate Garamendi familiaren exebizitzan hartzen hasi ziren. Lehenengo andereñoa Begonia Abaitua izan zen. Lehenengo ikasturte hartan, familia bakoitzaren exebizitza izaten zen umeen ikasgela. Hilero aldatzen zuten exebizitza.

Lehenengo 1erroa: Irene (adineko emakumea), Ibone Amezagaga, Mattedder Jimenez, Itziar Jimenez / **2. 1erroa:** Jon Larrinaga, Elizabete Larrinaga, Nerea Landa, Maria Landa, Eloie Basañez, Inaki Basañez / **3. 1erroa:** Marisa Urretxua, Jabi Urretxua, Eduardo Porset, Luis Ramos, Idoia Amezagaga, M. Jose Urrutia / **4. 1erroa:** Ane Miren Amezagaga, ?, ? M. Antonia Andracka (andereñoa zutunik)

IZARO IRAETA > Kazetari eta aurkezlea

“Gaizki esanak normalean ez dira aurpegira esaten”



- Zure izaera definitzen duen ezaugarriren bat...**
Alaitasuna.
- Zein da zure akats edo maniarik nabarmenena?**
Burugogorra izatea akatsa baldin bada, hori esango nuke.
- Maiz errepikatzen zaizun ametsa...**
Azken aldi honetan ez dut askotan errepikatzen zaidanik, baina lehen hegan egiten nuela maiz amets egiten nuen.
- Zure haurtzaroko oroitzapen bat...**
Bat baino gehiago daukat, baina guztiak atsegin eta alaiak, batez ere etxean eta sagastian jolasten igarotako denbora dut gogoan.
- Zein da gehien miresten duzun pertsona?**
Norbait bereziki mirestu baino, nire inguruko pertsona bakoitzetik zerbait miresten dut.
- Zer da pertsona batengan gehien baloratzen duzuna?**
Zentzuduna izatea.
- Zer da jarraitzaile batek esan dizun gauzarik ederrena?**
Nire lana ondo egiten dudala esaten didate eta hori eskertzekoa da.
- Zein komentariok egin dizu kalte gehien?**
Ez dakit, normalean komentario horiek ez direlako aurpegira esaten.
- Zein da zure libururik gogokoena?**
Jose Luis Sampedroren *La vieja sirena*.
- Abestirik gustukoena?**
Luz Casalen kantak oso gustuko ditut.
- Eta film bat?**
Ezin bat hautatu, pelikula bat ikustera joaten naizenean sartu egiten naiz istorioan, baina gero ez dut gogoratzen horrela bereziki markatu didan filmik.
- Zein lema eginen zenuke zeurea?** Usteak erdi ustel.
- Zertan edo norengan sinesten duzu?** Familiarengan.
- Zerbaitez damutzen zara?**
Gauza askotaz damutzen naiz, baina horiek bakoitzarentzat gordetzekoak dira.
- Zerk ematen dizu beldurra?**
Sufrimenduak. Sufritzeari diot nik beldurrik handiena.
- Nork edo zerk egiten zaitu zorionsu?**
Maitasunak eta, bereziki, nire senarrak.

IZARO IRAETA—. Aurpegi oso ezaguna euskal hedabideetan. Egun 28 urte baino ez baditu ere bere begi urdinek aspal-didanik liluratu gaituzte. Zaldibiar honek Leioan kazetaritza ikasten zegoela *Ikilimikiliklip* musika saioan bere lehen pausoak eman zituen. Euskadi Irratian praktikak egin ostean, *La Monda* programan erreportari eta *Ikusgela*-n bost urtez aurkezle izan da. Bost neba-arrebaren artean emakume bakarra da Iزارo Iraeta, eta helduena. Agian horrek bizitzan gauzak argi izaten irakatsi dio eta eman dizkigun erantzunetan zorrotasun hori agerian utzi du. Aurten *Esta es mi gente* programa arrakastatsuan egunero erronka berriari aurre egiten ikus dezakegu. Inoiz bikoterik aurkituko diguzu?



Dirulaguntzak



ZER DA UDALAK DIRUZ LAGUNTZEN DUENA ?

- Zure denda edo establezimenduk errotuluak.
- Toldoak.
- Ibilgailuen errotulazioa.

ZENBATEKOAK DIRA DIRULAGUNTZAK ?

- EUSKARA HUTSEZ
Euskara hutsean idatzita dagoen errotulu bat ipintzen baduzu, %50 ordainduko zaizu, gehienez 180 ¢ (59.898 pta).
- ELEBITASUN PIZGARRIZ
Euskaraz eta erdaraz idatzita dagoen errotulu bat ipintzen baduzu, %30, gehienez 180 ¢ (29.949 pta).
Udalak, BETI EUSKARAZKO testuak, bai tamainaren tukiagatik edo azpimarratuta egoteagatik, lehentasunezko tratu jasotzen badu.

